



Topa egiteko
TXOTX
egun handia!



Recalde

Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinika

Miopia, katarata eta prezbiziaren kirurgia
Begi lehorren tratamendua



Hirierdi

EIBAR



BISITA EZAZU ETXE PILOTUA

Ate irekien egunak:

/ Urriak 6, ostirala / Urriak 7, larunbata
15:00 - 19:00 10:00 - 14:00

Egogain kalea, 22 - 24 - 26, Eibar

- Arkitektura modernoa eta funtzionala.
- Eibarko erdigunean.

Bisita ezazu gure webgunea
www.hirierdi.com

Ordutegi jarraia:
Astelehenetik ostiralera:
08:00etatik 20:00etara

Larunbatetan:
10:00etatik 14:00etara

Askatasunaren etorbidea 3
Donostia
T. 943 543 543
info@komenioetxea.com



Zure enpresa erakusteko
leku aparta

GIDA

KOMERTZIALA 2018

Eibarko ETXE GUZTIETAN eta
herriko komertzio, enpresa,
bulego, ikastetxe, osasun-
zentro... guztietan banatzen da



publizitatea@etakitto.eus
943 20 67 76
www.etakitto.eus





Euskara Elkarteak

ARGITARATZAILEA:
...eta kitto! Euskara Elkarteak.

HELBIDEA:
Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:
943 20 67 76 / 943 20 09 18.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitate@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:
elkarte@etakitto.eus /
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:
Ana Aizpurua, Itziar Albizu,
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi,
Silbia Hernandez eta Uxue Igarza.

ADMINISTRAZIOA:
Marisol Uriarte.

KOORDINATZAILEA:
Ana Aizpurua.

ERREDAKZIO-BURUA:
Silbia Hernandez.

**DISEINUA ETA
MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA:
Maialen Belaustegi
eta S. Hernandez.

HIZKUNTZA ARDURA:
Juan Andres Argoitia
eta M. Aranberri.

PUBLIZITATEA:
Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

TELEFONOA: 943 20 67 76.

AZALEKO ARGAZKIA:
Maialen Belaustegi

BANAKETA-ARDURADUNA:
Ainhoa Luz.

TIRADA: 8.100 ale.

INPRIMATEGIA:
GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.
ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!* k ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien
erantzukizunik)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria



**EIBARKO
UDALA**



**GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

eskutitzak

– Eibartar bat kartzelara eta Pasaiaiko kaleetan bi Rambo solte –

Posiblea da inoiz ikusi eta ezertaz ezagutzen ez duzun hiritar batek bere kotxea gaizki aparkatzearen ondorioz zuk kartzelan amaitzea? Fikzioa dirudi, baina Pasaian gertatu da.

2013. urtean emakume batek bere autoa gaizki aparkatu zuen, bado batean. Udaltzainez jantzitako bi Rambo azaldu, autoari zepoa jarri eta garabiarekin autoa eramaten saiatu ziren. Emakumea bertaratu eta, isuna jaso ondoren, autoa eraman nahi izan zuen, bere eskubidea zelako. Bi Ramboek ezetz, momentuan bertan ordaindu behar zuela isuna, bes-tela bazeramaten autoa. Koakzioa, inolako babes legalik ez duena. Hala ere, emakumea ordaintzeko prest zegoen arren, inguruan kutzazainik ez. Udaltzainak tematurik, emakumea urduri, haren bi seme-alabak negarrez, eta inguruan jendea pilatzen. Ondoren eztabaida, garrasiak...

Azkenean, emakumeari kotxea eramaten utzi zioten baina, oso haserre zegoenez, udalera jo zuen gehiegikeria polizial hori salatzen. Kexa udal idazkaria ordezkatzen ari zen langilearen mahaira heldu zen. Ordurako emakumeak isuna ordaindua zuen. Hala ere, udaltzain biek emakumea epaitegian salatu zuten, erresistentzia egin omen zielako. Jakina, Pasaian beraiek dira legea, ez idatzia dagoena. Hortaz, emakumea ere epaitegira jotzeko prest azaldu zen, udaltzainak salatzeko asmotan.

Jarduneko udal idazkariak iritzi zion irtenbide on bakarra bi aldeek bakea egitea izango zela: Udaltzainek atzera egitea bere salaketan eta emakumeak haiek salatu ez. Emakumearen abokatua bat zetorren akordioarekin.

Idazkariak bilera batera deitu zituen udaltzainak, tratua azaltzeko. Haiek lasaitu beharra zeukan, uste baitzuten, zurumurruek arabera, udalak beraien gehiegikeria garesti ordaindu araziko ziela, disziplina-zigor batekin. Idazkariak, beraz, haiei bermeak eman nahian, dokumentu bat proposatu zion, beraien kezka uxatzeko: errepresaliarik ez, baina emakumearen aurka jotzerik ere ez. Haien ordezkaririk sindi-

kala ere lasaitu zuen, gaiari amaiera emateko akordio bat martxan zegoela azalduz. Idazkariak borondate onez jokatu zuen, jarduera oker baten ondorio gaiztoak saihestu nahian. Amaiera ona herritarrentzat, ona udaltzainentzat.

Baina bi Rambo pasaitarrek idazkariari ziria sartu zioten, eta nola. Bera eta alkatea epaitegian salatzen erabili zuten idatzi hori, hotz-hotzean, sei hilabete geroago, interes ilunen zerbitzari gisa jokatuz.

8 urteko kartzela zigorra eta 10 urteko inabilitazioa eskatu zuten irtenbide hori beraiekin adostu zuen jarduneko idazkariarentzat, alkatearentzat eta, bide batez, idazkari titulararentzat. Leporatzen zieten: prebarkazioa eta justiziari oztopoak jartzea.

la lau urte iraun du akusatuen amets gaiztoak, lekukotzak, frogak, epaiketa eta errekurtsioa tartean. Lehen istantzian epaileak, Ramboen gezurrak oinarri, jarduneko idazkaria, Iker, eibartarra, eta alkate ohia, Amaia, kondenatu zituen urte beteko kartzelaldira eta 7 urteko inabilitaziora. Baina ametsik gaiztoena hastear zegoen: fiskaltzak epaia ontzat eman bazuen ere, Ramboek ez zuten nahikoa. Odola nahi zuten. Haiek eta beraien atzean ezkututzen direnek errekurritu egin zuten. Behin betiko epaia sinestea zaila zaigu: kartzelaldia bi urte t'erdia igo diete bie. Barrura doaz. Rambo biak gehiegikeriak egiten jarraitzeko libre daude.

Ez da epaiketa politiko bat izan baina, EH Bildukoak ez den zein alkatek amaituko luke kartzelan horrelako tontakeria bategatik edo udal teknikari batengan dagokion konfidantza jartzeagatik? Eta nola azaldu udaltzainek lankide batengana horrelako gorrotoa izatea? Burutik sano daude?

Animo, Iker eta Amaia. Pasaiaiko herritarren eskubideen alde lanean aritu zineten, zintzoki; baita kasu honetan ere. Harro gaude zuetaz.

Irene Zarraua

**Urriaren 12ko zubia dela-eta
DATORREN ASTEAN
EZ DA ALERIK IZANGO**

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

LURRA EMON.- Lurperatu, enterratu. "Atzo emon detse lurra bere jaixo herrixan".

astean esanak

"Danimarkan orain eskoletako etxeko lanak kendu nahi dituzte alderdi askok, 10. mailara arte behintzat. Horrela izan behar da, zailtasun gehien dituzten haurrak izan ohi direlako etxean gurasoek lagundu ezin dietenak. Lan guztiak eskolan eginda, egoera parekideago bat sortuko genuke. Gainera, Danimarkan bi gurasoek lanaldi osoan dihardute normalean"

(MAI VILLADSEN, HEZKUNTZA AHOLKULARIA)

"Soldata gorenaren eta baxuenen arteko aldea handitu egin da geratu barik. Euskadin 2008an gutxien kobratzen zuten beharginen (ehunetik beheko hamarra) soldata 9.996 eurokoa bazen, 2015ean kasu horretan zeudenen soldata 9.876ra jaitsi zen. Hori zazpi urte horietan KPI %8,5 igo zela. Ba langile behartsuenen %10 hori gehiago pobretu bada, gehien kobratzen dutenen goreneko hamarren soldata 42.336 eurotik 45.838ra igo da, tarte horretan KPI igo dena baino 300 euro gehiago"

(LUIS LOPEZ, EKONOMILARIA)

"Europar Batasuneko Estatu kideek hitzartutakoaren arabera, 160.000 errefuxiatu hartu behar zituzten Estatu kideek, eta 28.000 baino ez dira heldu Italiatik eta Greziatik. Maltak ezarritako kopurua gainditu du, errefuxiatu gehiago hartuta; Finkandiak %94a hartu du eta Irlandak %92a. Espainiako gobernuak, aldez, hitzartutako kuotaren %11a baino ez du bete, eta kuota horren ez betetze tasa handienetakoa du. Horiei sarrera debekatu eta kataluniarrei ateratzeko aukera itxi"

(ARITZ GORROTXATEGI, ZUTABEGILEA)



EVA PEREZ DE ALBENIZ

Kaskarrekoa

"Kaskarrekoa" ren ideia ez da nirea, uda honetan irakurri dudana liburu batean aurkitu dut kontzeptu hau, eta asko gustatu zait. Kaskarrekoa hartzea zera da, momentu hori non bapatean feminista zarela konturatu zaren. Eta ez aukera bat bezala, aukera bakarra bezala baizik.

Batzutan egoera zehatz batek ematen dizu kolpea: zure lankideak lan berdina egiteagatik soldata altuagoa daukala enteratzen zarenean; beste batzutan golpe txiki askok zabaltzen dizkigute begiak: beldurra ematen dit etxera bakarrik joateak, tabernan garagardoa nere mutilari eta mostoa neri zerbitzatu digute eta alderantziz eskatu dugu.

Niri ama izan nintzenez gertatu zitzaidan. Baneuzkan lagun feministak, radikal samarrak batzuk, eta emakumearen egoeraz hitzegiten zidaten, adibide eta datuekin... eta bai ulertzen nuen baina... badakizu, norberaren esperientzia ez da hori izan eta ulertu ulertzen duzu, baina ez duzu sentitzen.

Eta orduan nire lehenengo semea jaio eta buruan kaskarreko ederra hartu nuen. Nire lagun feministek deskribatzen zituzten ezberdintasun horiek ulertzeaz gain sentitzen ere hasi nintzen. Tontokeriak: umeen erropak, jolasak, hitzegiten diegun era, zer lagatzen diegun egiten eta zer ez; mutilei era batera, neskei bestera.

Eta ez naiz ari aitzitza amamez, gurasoez baizik. Gure burua "modernotzat" jotzen dugun hoietaz. Desilusio galanta hartu nuela aitortzen dut. Besteengatik baina baita nigatik ere. Behin kaskarrekoa hartzen duzunean mundua begiratzeko era aldatu egiten da eta sexismoa edonon dagoela konturatu zara: telebistan, lanean, kalean, ohean, lagunartean.. eta sarritan gure baitan ere. Berdintasuna lortzeko bidean (gogoratu eskubideez ari garala, argi dago gizon eta emakumeak ez garela berdinak) lan egiteko era asko daude. Baina etxea behetik gora eraikitzen da. Etorkizuneko gizartea osatuko duten pertsonak etxean daukagu, hezi ditzagun berdintasunean. Gure seme alabek ingelesa edo igerian jakitea garrantzitsua da bai, baina ez da garrantzitsuena ezta?

Gaur hasiko dira "Jana ez da txantxa" bazkarirako txartelak saltzen

Egoaizia GKEE-k eta Aldatzen boluntarixuen taldiak "Jana ez da txantxa" IV. Bazkari solidariak antolatu dabe urriaren 21erako, Perun dittuen alkar-te lagunendako dirua batzeko. Oinguan, bestiak beste, Arzak jatetxian idazlia eta sukaldarixa dan Xabier Gutierrezen parte-hartzia eukiko dau ekitaldixak. Horrekin batera, egunian zihar ikuskizun eta jarduera berezixak egingo dira eta eguardixan umiak Untzagan eskinduko dan dohaiñeko sukaldarixta taillarrian parte hartzeko aukeria izango dabe. Bazkarirako txartelak gaurtik aurrera erosi leikez Guridi, Kultu, Kontent eta Koskor tabernetan eta Villalba supermerkatuan (10 eurotan, 7 eurotan umiendako). Bestalde, juaterik ez dakenendako "0 platera" be salduko dabe.



Eskualdeko gaztagillieri eskindutako programa betia

Debemen alkartiak eta Eibarko Udalak Debabarreneko II. Gazta Astea antolatu dabe eta, horren harira, urriko asteburuetan eskualdeko gaztandegixetara bisitak eskinduko dittue, jendiak abeltzaiñen bizimodua eta gaztataren prozesua bertatik bertara ezagutzeko aukeria izan deixan. Gaztagillien basarrietara juateko interesa dakenak Debemen alkartiaren buleguan emon biharko dabe izena, 943 74 40 67 telefonora deittuta. Horrez gain, urriak 19xan Eibarko tabernetan pintxo-pote berezixa egingo da, eskualdeko zazpi gaztaiekin: Egixa (Itziar), Sosola (Eibar), Mausitxa (Elgoibar), Goienetxe (Mutriku) eta Onandi (Mallabia) ardi gaz-



laz antolatu zan lehelengoz Debabarreneko Gazta Astea. Artxiboa

taiekin, Egotza (Soraluze) ahuntz gaztaiarekin eta Mallagoi (Mallabia) behi gaztaiarekin. Urriak 20xan, barriz, Debabarreneko II. Gazta Astea aurkeztuko dabe Malen Sarasua gazta ikertzaillik zuzenduko daben ekitaldixan. Udaletxeko patixuan izango da, 19:30xetatik aurrera eta

eskualdeko zazpi gaztaiek dastatzeko aukeria izango da, txakoli eta ogixarekin batera. Dastaketan parte hartzeko alde z aurretik izena emon biharrira dago. Eta, programia biribiltzeko, urriak 22xan Gazta Azokia eta erakustaldixak egingo dira Untzagan, 10:00-etatik 14:00xetara.



San Miguel jaixak bete eben asteburua Agiñagan

Barixakuan, San Miguel egunian hasi eta domekara bittartian ospatu zittuen sanmiguelak Agiñagan. Urteroko martxan, ermittan ospatutako mezekin batera, umiendako jolasak, herri kirolak, musikia eta herri bazkarixak osatu eben programia, beste jarduera batzuekin batera.

Iñaki Arriola euskal sozialisten presidente

Aurreko zapatuan egindako PSE-EEren VIII. Kongresuan Jesus Egigurenek 2014an lagatako tokixa berreskuratzea erabagi zeben eta Iñaki Arriola gure herriko alkate izan-



dakua aukeratu eben kargu horretarako. Jauriaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio kontseillarixa da gaur egun eta ia-zko udara arte Gipuzkoako sozialisten buru izan zan. Arriolarekin batera, Miguel Angel Morales eibartarrak be jarraitzen dau Idoia Mendiaren Ejekutiba barrixan, Organizaziño arloko buru postuan; azken honek hiru urte daroiaz kargu horretan.

“Energia, ingurumena eta gizartea” Portalean

UPV/EHUko Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolak, Eibar-ko Udalaren Ingurumen sailarekin batera, “Energia, ingurumena eta gizartea” izenburuko jardunaldixak antolatu dittu. Hiru saio izango dira guztira, Portaleko are-



Santiago Barba.

to nagusixan: lehelengua aste honetan, eguaztenian egin zan, Alba del Campo, Cadiz-ko Trantsizio Energetikoaren Mahaiaren koordinatzaillaren eskutik. Bigarren saia urriaren 18xan izango da eta Santiago Barba, Eko-REC enpresako zuzendarixak eskinduko dau, ekonomia zirkularren inguruko hitzaldixarekin. Eta urriaren 25ian, Meghan Sapp, Planet Energy SL enpresako gerentia ingurumenaren inguruko hitzaldixa eskinduko du. Saiuak 19:00etan hasiko dira eta sarrera libria izango da, eserleku guztiak bete arte.

ENERGIA, INGURUMENA ETA GIZARTEA

JARDUNALDIAR
 Urriak 4 - 18 - 25
 19:00
 Portalea
 ehu.es/ehibar

autuan

BISITA GIDATU BARRIXAK GEOPARKIAN

Eskintza betia preparau dabe udazkenerako Euskal Kostaldeko Geoparkian. Bisita gidatuen egutegi osua geoparkea.com webgunian konsultatu leike eta bertan egin leikez erreserbak online. Proposamenen artian, nabarmentzekua da urriko domeka guztietan, goizeko 11:30xetan eskinduko daben “Flyscha, begirada batean” irteera gidatua, euskeraz.



ENPRESENDAKO DIRU-LAGUNTZAK

Udalak ikerketak eta jarduerak sustatzeko diru-laguntza lerro bat zabaldu dau, 50 bihargin baiño gitxiagoko enpresen lehia-ahalmena hobetzeko asmuarekin. Deialdi honetan, barrikuntza, naziñoartekotze eta digitalizaziño proiektuak lagunduko dittue diruz, eta baita inbersiñuak eta naziñoartekotzia sustatzeko jarduerak be. Eskaerak aurkezteko epia azaruaren 17xan amaittuko da eta Pegoran entregau biharko dira.

NAFARROA OINEZ

urriaren 15ean

bikin bat in

Nafarroa Oinez 2017

Lesaka

Lesakan

AUTOBUS



ZERBITZUA

IRTEERA

9€

BUELTA

09:00etan Ego-Gainetik

19:00etan Lesakatik

J.A. Mogel Ikastolako Gurasoen Elkarte / ...eta kitto! Euskara Elkarte



Funeraria-Ehortzete

Mugica

EIBAR



Beilatokia
 Funeuskadi Eibar:
 Otaola, 27

ELGOIBAR



Beilatokia:
 SIGMA Industrialdea
 (Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko
 erdialdean



24 orduko zerbitzu iraunkorra

943 20 19 51 www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze
 Taldea

GRUPO
funeuskadi

#AtzegiXperience sensibilizaziño kanpaiña aurkeztu dabe

Eguazten eguardixan aurkeztu eben #AtzegiXperience sensibilizaziño kanpaiña barrixa Eibarren, alkartiaren Txo-lartean. Naroa Artola teknikarixak eta Carmen Simon, Atzegiko Debabarrenako ordezkariak aurtengo kanpaiñako ardatza diran boluntariueta hiru, Ainhoa Lazpita, Javier Azpilikueta eta Esther Alonso izan zittuen aldamenian ekitaldixan. Aurkezpenian azaldu ebenez, aurtengo goiburuarekin boluntariuak erakarri nahi ditue alkartera eta, horrekin batera, boluntariuak Atzegin egitten daben biharra nabarmendu nahi dabe: *“Urritasuna dakenak, deialdi dibertigarri baten bidez, boluntariuaren esperientziak modan daguzen esperientzia kajekin alderatuta, bizi-pen ahazteziñak izateko inbitaziñua egin nahi dabe. Aldi berian, boluntariuaren lana azpimarratu nahi dogu, hau da, euren denporia adimen desgaitasuna dakenekin par-*



tekatzen dabeneri eskerrak emon nahi detsaguz”. #AtzegiXperience goiburuko lau kaja ezberdin (Bizipoza, Escapadas, Bienestar eta Bidelagun izenekoak) etera ditue, *“Atzegik eskintzen dittuan boluntariu izateko aukera ezberdiñak”* ezagu-

tzera emoteko asmuarekin. Aurkezpenian parte hartu eben boluntariuaren berbetan, *“zapatu arratsaldiak konturatu barik juaten jakuz, benetan oso ondo pasatzen dogu, bestela ez giñake etorriko”.* Horregaittik, jende gehixago animatzia nahi dabe, holan gauza gehixago egitteko aukeria izateko. Aurkezpenian esandakuaren arabera, *“boluntariuarekin, Atzegiko neska-mutillak famelixatik kanpora euren adin eta gustuekin bat egitten daben gauzak egitteko aukeria izaten dabe eta hori benetan garrantzitsua dala uste dogu”.*

Amaittu aurretik, oin egun batzuk hil zan Maite Narbaiza gogoratu nahi izan dabe: *“Urte asko emon zittuan Atzegin eta alkartia bere famelixa billakatu eban. Bestiekiko zekan konpromiso mailla oso haundixa zan, beti eguan edozertan laguntzeko prest. Bere heriotza dala eta, pena haundixa hartu dogu”.*



Ingenieritza Eskolako talde batek EDP-Berriztagarri 1. sarixa irabazi dau

Euskal Herriko Unibertsitateko Gipuzkoako Ingenieritza Eskolak Eibarren dakan Energia Berriztagarrien Ingenieritzako graduko ikasle talde batek, EDP-Berriztagarri antolutatako “University Challenge” lehiaketako lehen sarixa irabazi dau estatu maillan. Sarixa estatu osoko unibersidadien artian jokatu da eta ehun proiektu baiño gehixago aurkeztu dira. “Energia eolikoaren integrazioa eraikintan” lanarekin sarixa eskuratu daben taldia Oscar Garcia, Mario del Rio eta Gari-koitx Arcelus ikasliak osatzen dabe eta Alain Ulazia irakasliak zuzendu dau. Jada eraikita daguzen etxebizitzetan haize energia urbanua aprobetxatzia billatzen daben ROSEO haize-errota aurkeztu dabe EHU-kuak eta horrekin irabazi dabe sarixa. Deialdi honetan 71 unibersidadetako ikasliak hartu dabe parte. Hori dala eta, Gipuzkoako Ingenieritza Eskolako Eibarko atalian pozarren jaso dabe sarixaren inguruko albistia, *“hamen egitten dan biharra atzera be sari bat jaso dabelako”.*

Topaketia eta bisita gidatuak hartuko dittu Museuak

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Europar Batasunarekin lankidetzan, Europako Kontseiluak sustatutako Ondarearen Europako Jardunaldiak izenekoaren ediziño barrixa antolatu dau. Eraikunde ugariaren partaidetza dakan programa horrekin Ondare Kulturalari buruzko sensibilizaziñuan sakondu nahi dabe eta, horrerri lotuta, urriaren 21ian topaketia antolatu dabe Eibarren. “Eibar tailer-hiria, urban sketchers-en begiradapean” izenburuko topaketia Armagintzaren Museuan izango da, goizeko 10:00etatik aurrera. Ondoren bazkarixa egingo da eta arratsalderako museora bisita antolatu dabe. Antolatzaillien berbetan, *“Eibarko arkitektura industrial, lantegixak, taillarrak, etxebizitza-taillarrak eta eraikiñen berezitasunak, auzuak eta 50eko eta 60ko hamarkadetako garapen urbanistikua izango dira abiapuntua ‘sketchcrawl’ bateko partaidien jardunaldixa dinamizatze”.* Mundu maillako artista talde batek (“Urban sketchers”) egitten daben geldialdiari esaten detse “sketchcrawl”. Azaldu dabenez, *“artistok bizi diran hiriak eta bidaietan ezagutzen dittuen tokixak marrazten dittue, ondoren web-*



gunera igotzeko. Gaiñera, bi hillian behin edo, geldialdiak egitten ditue eta holako bat izango da Eibarrek hartuko dabena”. Jardueria irekixa izango da eta edozeiñek daka parte hartzeko aukeria, baiña aurretik izena emotia eskatzen dabe, 943 70 84 46 telefonora deittuta edo museoa@eibar.eus helbidera idatzitta.

Bestalde, Armagintzaren Museuan urte osuan ikusgai dagan erakusketia ikusi nahi dabenendako doako bisita gidatuak eskinduko ditue urriak 14an, 17:00etan euskeraz eta 18:30xetan gaztelaz. Horretarako be izena emon biharro da.

TUTULUMENDI



IDURRE IRIONDO

Belgikako Marchin herrixan harrera egin zetsen alkatiari

Miguel de los Toyos Eibarko alkatiak Belgikara bidaiara egin eban aurreko asteburuan, Eibarko Udalak Marchin herriko alkatiaren gonbidapena jaso eta gero. Marchinek 1937xan 260 ume euskaldun, tartian eibartar batzuk hartu zittuela gogoratu eben zapatuan eta, hori dala eta gonbidatu eben alkati urteurrena gogoratzeko ekitaldira.



260 ume hartu zittuen Marchinen.

Ekolapiko Egunak itxiko dau Debabarreneko VI. Aste Ekologikua

Aurreko asteburuan, domekan Untzagan egin zan azoka ekologikuekin hasi zan Debabarreneko VI. Aste Ekologikua bixar amaittuko da, goiz eta arratsaldez Urkizun ospatuko dan Ekolapiko Egunarekin. Bestiak beste taillarrak, antzeulanak eta umiendako jolasak eskinduko dittue, herri-tarrerri Ekolapiko proiektuaren barri emoteko. Ekolapiko bertako basarrietan sortutako elikagaiekin, elikadura ekologikoa eta osasuntsua eskoletako jangeletan txertatzeko proiektua da eta horri buruzko informaziñua emongo dabe bixar.



Maialen Belaustegi

Euripian ospatu zittuen jaixak Wenzeslao Orbeak

Eguraldixarekin suerte haundirik euki barik be, ederto ospatu zittuen jaixak Wenzeslao Orbea kalekuak aurreko zapatuan, goizetik hasi eta gaberaiño luzatu ziran ekitaldixeri esker: auzokidien artisautza erakusketia, jokuak, pintxo-potia, patata-tortilla txapelketia, bazkarixa, umiendako puzgarrixak, herri kirolak, musikia... denetarik euki eben. Antolatzailliak eskerrak emon nahi detsez jaixan parte hartu eben guztieri, baitta programia prestatzen lagundu eben enpreseri: Oroz ardaauk, Eroski, El Corte Ingles, El Jardin de Tulipa, Abontza estetika klinika, DJ Sergi, Duo Amanecer, Zatzatuz harategixa eta Chalcha jatetxia.

MARCELINA CAMPOS CAMPOS

2017ko irailaren 7an hil zen,
83 urterekin



FAMILIAREN IZENEAN, ESKERRIK BEROENA
gure nahigabeen lagundu diguzuen guztioi
eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.



XVIII. mendera eramango gaitu Iñaki Zuloagak argitaratu berri duen 'Hijos del gran arquitecto' liburuak. Askatasun zibilen sorkuntzaren, AEB-ren independentziaren eta gaur egungo munduaren oinarriak ezarri ziren sasoiaren murgiltzen gaitu Manex Lamark protagonistaren eskutik, abenturazko eleberririk klasikoaren elementuen bitartez. Ekonomilari, enpresari, politikari eta idazle eibartarrak masoneriak historian zehar izan duen garrantzia azpimarratzen du, erakundea gizarteratu eta bere inguruko hodei beltzak uxatzen saiatuz.

IÑAKI ZULOAGA (idazlea):

"Borrokatzeko sasoi da, mundua gobernatzeko duten indarrak oso erreakzionarioak direlako"

– *'Hijos del gran arquitecto' da zure lehen eleberria. Zerk bultzatu zaitu hori idaztera?*

Beti gustatu izan zait literatura eta beti idatzi izan dut, baina hau zailagoa izan da. Eleberririk historikoa garatzea gaitza da, asko ikertu eta girotu behar delako. Masoneriak Euskadi izan duen berreraikitzearen parte hartu duten pertsonetako bat naiz. Frankismoak gehien jazarri zuen erakundea izan zen masoneria, Francok gehien gorrotatzen zuena, luze gainera. Bestetik, masoien legenda satanikoa hartu zuen Frantziatik, XIX. mendean Frantziako masoneria eta Vatikanoren arteko borrokengatik eratu zena, eta elizari eman zion Espainiako masoneria txikitzeko. Orduan, gure inguruan beti kontu beltzak aipatzen direnez, masoneriak berebiziko papera izan zuen sasoiaren kokaturiko eleberria idaztea pentsatu nuen, Amerikako Estatu Batuek (AEB) independentzia lortu zuten sasoiaren.

– *Zergatik sasoi horretan?*

Mundua gobernatzeko duten errege absolutistek herritar talde batek lehen aldiz esaten dielako momentu horretatik aurrera ordena politikoa guztia herriaren subiranotasunean ezartzen dela. Samuel Adamsek esan zuen hori zehazki. Aldaketa itzela izan zen hura. AEB-tako independentzia deklarazioak adierazten zuen denak berdin sortuak izan ginela, gobernuak sortzeko eskubideak genituela eta, gaizki eginez


gero, horiek kendu ahal genituela, besteak beste. Horrelako gauzek ezarri zuten gero etorri ziren demokrazia liberalak, legegaren inperioak. Kontua da gai honen aktore gehienak masoiek direla. George Washington, Adams bera, Benjamin Franklin, etab. Masoneriak berebiziko papera izan zuen ordena politikoa berri horren formulazioan. Eleberrian abentura istorioa kontatzen dut, baina erabaki ikaragarriak hartzea tokatzen zen momentu historiko horiek islatzen ditut.

– *Nolako abenturak kontatzen dituzu?*

Abentura eleberririk klasikoa da eta denetarik elementuak ditu (intriga, ezpatariak, itsas-bidaia...). Hainbat konturen inguruan hausnartzen dut Manex Lamarken abenturak kontatzen ditudan bitartean. Berak Parisetik AEB-ra bidaiatzen du, Frantzia Ingalaterraren aurka gerran sartzeaz dagoelako. Azpikeria handiko sasoi da eta Manexi misio garrantzitsu baten ardura ematen diote.

– *Gizarteratzen ari da masoneria?*

Bai, guztiz. Frankismoan jasandakoa izugarria izan zen eta masoneriari asko kostatu zaio altzatea. Erail ez zituztenak erbestera joan ziren eta, horrez gain, estigma geratu zen. Jendeak ez daki AEB-tako presidenteen erdiak masoiek izan direla, Ingalaterrako erreginararen lehengusua ere badela, Frantziako Alderdi Sozialistako agintari asko ere (Mitterrand tartean), musikari handiak (Wolfgang eta Leopoldo



Mozart, eta Haydn), etab. European ez da masoneriaren jazarpenik egin eta han normal hartzen dute, baina Espainian eta Euskal Herrian ez. Hemen, masoneria karlistoaren etsai handia izan zen eta horrek ondorio latzak izan zituen masonerientzat. Masonerian hasi nintzen momentuarekin alderatuta asko hazi gara eta sozializazio bidea hasi dugu. Liburuan ere masoneria modu arin eta normalean islatu dut, egunerokotasunean parte hartzen duten elementuen antzera. Gure taldeak bezalako kutsu liberal frantseseko masoneriak beti izan du ardura gizarte kontuetan. Borrokatzeko sasoi delako uste dugu, gaur egun mundua gobernatzeko duten indarrak oso erreakzionarioak direlako. Finantzen liberalismoa basatiak eta lan merkatuen desregulazioa basatiak ez gaitu eramango pertsonak askatasun gehiago izatera.

– *Nolako presentzia izan du masoneriak Eibarren?*

Eibarren izan dira masoneriari lotutako pertsonaiek, baina ezin dugu ezagutzera eman nortzuk izan diren. Nahiz eta hiri liberala izan, Eibarren ez da logiarik egon eta Errepublikaren garaian Bilbora joaten omen ziren.

Azken egunotan denon ahotan dabilen berba "Katalunia" da. Urriaren 1eko erreferendumaren harira sortu den giroak, handik ailegatu zaizkigun kontakizun eta irudiak... Hasieran "Kataluniako afera" modura ezagutu genuenak hango mugak gairitu eta geurean ere eragin nabarmena izan duela argi dago.

Eibartar batek baino gehiagok erreferendumaren eguna zuzenean bizi nahi izan zuen eta, asmo horrekin, hainbat Kataluniara joan ziren. Horietako bat **Aitor Alberdi**, Eibarko Gure Esku Dago taldeko kidea izan zen. Domekako eguna goiz hasi zuten: "06:30etarako Vilanovan geunden. Hauteslekuan gau osoa han pasatu zutenak eta herritar ugari zeuden, tartean herriko zaharrena, 86 urteko Manel. Han zegoen jendea animatzen, niretzat hunkigarria izan zen, orduan sentitu nuena esateko berbarik ez daukat. 08:00ak aldera ailegatu ziren "Mossos de Escuadra". Herrikoen eta gure artean hauteslekua babestuta genuen. Arduraduna nor zen galdetu eta denok batera 'tots' (denok) erantzun genuen. Hautesontzia ezkutuan ailegatu eta bozketa hasi zen: Manel izan zen lehena. Gure pozak gutxi iraun zuen, lehen argazki eta bideo bildurriak ailegatzen hasi ziren eta. Herritarrek berehala antolatu ziren. Umeak eta haurdun zeuden emakumeak nora joan behar ziren azaldu eta beste guztiak hatesleku aurrean bildu ginen. Bitartean hauteslerako bideak kipula, tomate, sagar eta bestelakoekin betetako kajekin itxi zituzten. Hori zen kipula usaina! Hori zen gure 'arma kimikoa'. Bidegurutzetan jendea zegoen, Goardia Zibila azalduz gero abisua emateko prest...".

Hasierako asmoa bezperako hauteslekuetara bisitan joatea izan arren, plana al-



Elkartasuna eta babesa azaltzeko deialdi guztiek jendetza batu dute Eibarren.

datu zuten: "Gure tokiak Vilanovan, hauteslekua babesten zegoela erabaki genuen. Hala ere, arratsaldean Bellpuig-era joateko tartea izan genuen eta han ere giro bera zegoen: oso alai, baiña denbora guztian argi, hateslekua gordetzeko".

Ettxera eskaera bakarrarekin, gertatukoaren berri emateko bueltatu ziren: "Egun osoan hango andra-gizonekin, adin guztie-

tako jendearekin egon eta gero, argi daukat den-denak nazkatuta daudela Espainiako gobernuak Kataluniarekiko duen tratu eskasarekin, batez ere arlo ekonomikoan. Beldurra galdu egin dute. Hauteslekuak altxorrik haundiena baino hobeto gorde eta defendatu zituzten. Zaila izango da herri hau gelditzea. Urriaren lehenak iraganaren eta etorkizunaren artean muga jarri du".



M-7 galdeketa bi begiralekin joan zen Aitor Alberdi Kataluniara, domekan hauteslekuetan laguntzeko.

EIBARTARREN BABES ETA ELKARTASUNA

Kataluniako erreferendumaren harira domekan gertatutakoen aurrean, poliziak erabilitako indarkeria salatzen eta katalanei elkartasuna azaltzeko gauean kazeroladak egin ziren Euskal Herriko herri askotan, baita Eibarren ere, eta gurean jendetza batu zen. Untzagatik abiatuta, herriko kaleak zeharkatu zituzten, lapiko eta bestelakoekin zarataka, eta bidean askok lagundu zieten leihotatik. Erreferendumak ez ezik, Katalunian martitzenerako deitu zuten greba orokorrerako deialdiak ere babes handia izan zuen gurean. Sindikatuen deiarri erantzunez, eskualdeko langileek elkarretaratzeak egin zituzten hainbat enpresatan: Eibarko Udala, Sorraluzeko Udala, Rodisa, Tekniker, Polmetasa, Teknikalde, Conservas Yurrita, Elay, Mendaroko Ospitala, Spicer Ayra Cardam, Arrasateko Udala... Eta arratsaldean eta gauean eibartar asko kalera irten ziren, manifestazioa egin eta zarataka berriz ere Kataluniarekin bat egiteko.

Hillaren 24an Polio gaixotasunaren Naziñoarteko Eguna ospatuko dabe. Halanda be, urtiak jua urtiak etorri, bestela be nahikua nekatzen diran hórrek gaixuak bestela be nekatzeko moduko buruhauste askori egin bihar izaten detse aurre euren egoeria errekonozittua izan deixan eta horren aurrian bihar daben laguntasuna jasotzeko. Gaiñera, gaixotasun hori gaur egunian desagertuta daguan, horren inguruko inbestigaziñua martxan jartzia be gatxagua da. 1950eko eta 1960ko hamarkadietan gaixotutakuak dira gehixenak, mende erdixa betetziaren bueltan gaixotasunaren bigarren esnaldixa nabaritzen dabenak. Birus batek eragindako kaltia bizi guztirako jasan bihar dabe, bihar zanian indarrian zeguan botikia ez zetsen-eta errezetau. Beste batzuen kasuan, talidomidaren biktimeri, kontrakua gertau jakuen: botikia emon zetsen eta hárek kaltetu. Azken hónek, baiña, kalte-ordaiñak jasoko dittue 2018xan.

*EPE elkarteko lau kide
 Untzagan, tartian Yolanda
 Motrel eta Mario Feijoo.*



Errekonozimenduaren billa etengabe borrokan

Post Polio Sindromia gaixotasun kronikua da, neuro-muskularra, "diagnostiko gatxa daka, bere ondorixuak jakiñak dira, sendatzeko tratamendurik ez daka, baiña zelan tratatu bihar dan gomen-dixuak badittu" diñoskue EPE Euskadiko Polio Elkartetik. Munduko Osasun Erakundiak be onartu dau gaixotasuna, "arrarua, progresibua eta degeneratibotzat" jotziaz aparte. Poliomieltisaren birusa txikit-tan izandako askori, "erdixari bai behintzat", erasotzen detse gaixotasunak bigarren fase horretan, behin 45 edo 50 urtera heltzian.

Horren aurrian EPE alkartiak ahotsa ipiñi detse gaixo guztieri eta, 2014an jaixo zenetik ("estatutuak 2015ian onartu genittuen"), hara eta hona jo dau gaixotasun horren errekonozimenduaren billa. Lortu be lortu dittue hainbat gauza, tartian "Eusko Legebiltzarreko alderdi guztien aldeko jarrera



Poliomieltisak eragindako kaltiak gizarteratzeko ahalegin berezixa egitten dihardu Euskadiko Polio Elkartiak.

2016ko maiatzetik, gure arazuaz han bertan jabetu zirane-tik". Halanda be, ez da bide erraza oiñ arte ibillittakua eta une honetan "frankismuaren biktima" izan direlako errepara-ziñuaren alde jo dabe azken ekimenetan, "estaduak sasoi hartan (1955-1963) neglign-tziaz jokatu zebalako". Errepara-ziño horretarako, neurri sozio-sanitarixuak eskatzen dittue, "bizitza-kalidade egokixa izan daigun".

1950 eta 1960 urtietako hamarkadatan jaixotako 2.200 bat umeri uste da eraso zetsela poliomieltisaren birusak. Hórretatik 770 inguruk jaso izan dabe gaixotasunaren bigarren esnaldixa. Bizitzan aurrera egitteko lehendik erraztasunik ez eta "oiñ ingurukueri eta medikueri be gaixuek eurak esplikatu bihar zer gertatzen jakuen". Hori dakixenen kasuan, "izango diralako gertatzen jakuena identifika-tzeko gauza ez diranak be".

Gauzak gehixago nahasteko, gaiñera, gaixo guztiak ez dabe "sari" bera izan: batzueri biharra egitteko ezintasuna onartu detsen bittartian, beste askok borrokan dihardue oindiokan. "Halakuetan neurologuaren txostena indar haundixa daka".

Frankismoko biktimak

Mario Feijoo ondarrutarra da EPEko presidentia eta, berak diñuan moduan, "badira oindiok gaixotasun horren barririk ez daken medikuak. Oin dala 60 urte bihar zan botikarik hartu gabekuen arazua da, gaur egun jaixotzen diranak bakunauta dagozelako, eta horrek arazua larriagotu egitten dau. Zertarako inbestigau, gaixotasuna zaharra bada? Hamendik urte batzuetara ez da gaixorik be egongo". Ingalaterran, Alemanian, Holandan... European estudixuak egin dirala diñosku, baiña ez dakela soluziñorik.

150 bat lagun dagoz alkartian. Oin dala gitxira arte guztiz aban-

donatuta sentitu izan dira, alderdi nagusixak be agintera iritsittakuan aurrez esandakuari jarraitu barik, baiña azken aldian hainbat urrats emon dittue merezittako errekonozimenduaren billa. "Gaur egun, esaterako, Basurtoko ospitalian Varona doktoria espezializatu da gure gaixotasunian. Eta enuruan Osakidetza kodiguetan be sartu zan sindromia. Seguridade Sozialarekin be badihardugu inkapazidadia eskatzen eta jubilaziñua aurreraziaren alde". Politikoki gauzak zeozer mobidu badira be, "oindiok ez dago gidarik gaixotasuna ondo baloratzeke". Arazua larrixa dalako, "lehendik datorren degeneraziñua ariñago makaltzen", horrek berarekin daraman arazo psikologikuekin kasu askotan. Bizitza aldatzeraiño: "Gure jergan, bigarren atakia deitzen detsagu". Eta bada fibromialgiarekin be konparau dabenik, "batez be, gaixueri ez jakuelako siñesten, batez be gaixotasunaren barririk ez badake".

Azken aldian frankismoko biktimak lez onartzeko ahalgiña egitten dihardute EPE-n, "1955ian bakunak Espaiñiara heldu ziralako, baiña epidemixarik ez zeguala eta ez ziralako aplikatu. Zer gertatu zan bakuna

hárekin?", diño Feijook. Zeiñek jakin? "Artxibuak sekretuak dira, alderdixak ez dake interesik hori mobitzeko... eta hemendik hamar urtera dana akabo".

Diagnostikatzen zailla

Yolanda Motrel eibartarra 2000. urtiaren bueltan hasi zan post polio sindromiaren sintomak igartzen: "Indarrak galtzen hasi nintzan, gorputz osuan nabaritzen... kontsultatik kontsultara, neurologuekin, traumatologuekin, ea depresiñua izango zan... ni ezagututa, depresiñua?". Berari erabateko ezintasuna onartu zetsen behintzat eta bidian egin dittuen aurrerapausuak be onartzen dittu. "Gu desagertzen garenian, akabo. Urte gitxi batzuetan eutsi eta dana ahaztuko da" esaten desku erdietsita. Halanda be, espero dau "medikuak behintzat gaixuari ulertzia, ondo diagnostikatzia, eta iñor ez lagatzia botata". Kontzientziaziño maillan alkartiak lortutakua ezin da ahaztu.



Polioeko gaixuak, tartian Yolanda Motrel eta Marisol Martinez eibartarrak.

Talidomidarekin kaltetuak

Batzuen kasuan botikarik ez zebelako hartu gaixotu ziran moduan, badira beste batzuk euren amak haurdun zeguazienian botika ezegokixa hartu eta malformaziñuekin jaixotakuak. Talidomida botikia millaka andreri emon zetsen 1950 eta 1960 hamarkadetan, poliokuen sasoi berian, haurdunaldixan izandako ondoezak arintzeko asmoz. Botikia 1957xan atera zeban merkatura Alemaniako Grumentbal botikaetxiak, eta izen desbardiñakin saldu zan European eta Afrikan (AEB-etan ez zeben sartzerik onartu). Handik bi urtera hasi ziran aditu batzuk esaten botikak ondorixo larrixak eragitteko aukeria zeguala enbrioietan. Efectua haurdunaldixaren 37. eta 50. eguna bittartian hartu ezkerio iza-

ten zan: aurretik edo ondoren hartu ezkerio ez zan iñongo arazorik izaten.

Gaur da eguna talidomidaren biktimeri kalte-ordaiñak emon biharko detsela onartu dala. Hori bai, datorren urtian: "2018xan jasoko dabe. Batzorde zientifiko batek izango dau azken hitza kasu guztietan eta autonomia erki-dego bakotxak kaltetuen erregistrua egin biharko dau". Avite alkartia dabil buru-belarri botika horrek kaltetutakuari laguntzen: "Espaiñian saldu zan talidomida botika gehixen, eta azkenetakua izan zan erretiratzen". Oin ospitaleetan erabiltzen da, bestiak beste, minbizixa tratatzeko, baiña askoz be kontrolatuago. Brasilen lepra eta antzekuak tratatzeko erabiltzen da eta izan dira malformaziñuekin jaixo diranak.

2.000 euroko
Gabonetako OTARRA

1.500 euro produktuetan

+  -ko
EROSKETA-TXARTELA

Urriaren 11-tik aurrera kalean erosteko aukera

	Gabonetako OTARRA	
Gabonetako OTARRA	2.000 €ko balioa duen Otarra 1.500€ produktuetan eta 500€ko erosketatortale	eta kitto!
Prezioa: 1€	Prezioa: 1€	Euskara Elkarte
Zbk:	Zozketa 2017ko abenduaren 13an egingo da	Zbk:
	<small>Inklusioan 1€ ageritua ageritua ez izan, orokorrean otarra zati zati.</small>	





Oihane Perez eta Itsasne Garate (MIO)

“Gure lanek identifikatu gaitzateela nahi dugu”

Orain dela hainbat urte elkar ezagutu zuten Itsasnek eta Oihanek, eta beti pentsatu izan zuten zerbait eraikiko zutela elkarrekin. Bada orain dela urtebete jarri zuten martxan proiektu bat: Make It Own, edo MIO, diseinu grafiko eta web estudioa. Gustatzen zaiena egiten dute eta argi daukate hori dela euren bidea. Kalitatearen bitartez bereizi nahi du MIOk, lanei eskaintzen dien mimoa bereizgarri izatea nahi dute.

– Nola hasi zenuten proiektua?

I: Web Diseinuari buruzko masterra ikasten geunden Donostian eta hainbat lan egin behar izaten genituen. Orduan, pentsatu genuen erakargarriagoa izango litzatekela bezero errealetzako lanak egitea, gero agenzia batean zure lanak erakutsi behar badituzu, balio gehiagoko zerbait daukazulako.

O: Gehiago motibatzen zaitu gauza errealek egiteak. Hiru proposamen bidali genituen eta erantzunak jaso genituen. Azkenean ez gintuzten onartu, baina erantzute soilak bultzada eman zigun.

I: Bisita-txartelak egin genituen, irakasleek animatu gintuzten... eta aurrera egin genuen. Aholkulari batengana jo genuen fakturak eta horrelakoak nola egiten ziren jakiteko eta Ermuko Izarra Centreri buruz hitz egin ziguten. Bapatean, bertako lokalean instalatuta geunden.

O: Eta hiru edo lau bezerorekin!

– Laguntza edo gidarik jaso duzue enpresa sortzeko bidean?

I: Aholkulariaren aldetik pixka bat, kontabilitate kontuetan-eta.

O: Orain ari gara ikasten enpresa nola eramaten den. Gehiago ikasi dugu urtebete lanean, hainbat urtetan klasean ikasten baino.

I: Klasean aurrekontu simple bat ere egiten ez genuen ikasi. Hala ere, gure lana baloratzen irakatsi ziguten irakasleek.

– Zer eskaintzen du MIOk?

I: Diseinu grafiko eta webguneen diseinu zerbitzuak eskaintzen ditugu. Gure bezeroen publizitate eta komunikazio arloak kudeatzen ditugu, tresna horien bitartez euren negozioak sustatzeko. Sare sozialen kudeaketa, iru-



di korporatiboaren sorkuntza, webguneen edukien erredakzioa... kolaboratzaile sarea daukagu zerbitzu horiek eskaintzeko.

O: Negozioen estetika definitzen dugu.

I: Denak armonia bera izan dezala.

– Zer definitzen du MIO?

O: Ilusio handia daukagu, freskotasuna eta gauzak egiteko gogoia. Proiektu bakoitza zerbait berria da guretzat eta polita da, daukagun guztia ematen dugulako.

– Zer suposatzen du zuen enpresa aurrera ateratzeak?

I: Esperientzia txarrak izan ditugu, ez genezkiez bidean zer aurkituko genuen. Gure sektorea oso gutxi baloratzen da, zaletasuna dela uste da, baina lan handia dago atzean. Hasi arte ez dakizu zer den.

O: Askok heldu gara urte honetan eta oso harro nago egiten ari garenekin.

I: Gazteak gara eta gurasoekin bizi garenez ez daukagu gastu handirik. Beraz, lan batzuk ukatu egin ahal izan ditugu, ordezkatzeko gaituzten proiektuak aukeratu nahi ditugulako. Gure lanek identifika gaitzateela nahi dugu.

ITZULPEN
ERA GUZTIETAKO TESTUAK
ITZULTZEN DITUGU,
euskaratik gaztelerara,
gazteleratik euskarara,
eta ingelesetik euskarara.
ZERBITZUA
 elkarte@etakitto.eus

Radio Eibar
 CADENA
SER
104,0 FM

Izadi
LORADENDA
 – Lora eta landare natural eta lehorrak
 – Ezkontzetarako lorak
 San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

Iban Garcia youtuberrak "BooktuberBoom" lehiaketa azalduko du bihar liburutegian

Gazteen artean ikus-entzunezkoen bidez irakurketa sustatzeko asmoz EAEko Liburutegi Sareak, Galtzagorri Elkar-tearekin batera, BooktuberBoom EAEko I. Booktuber Lehiaketa antolatu du. Youtuben ibiltzea atsegin duten 14-18 urte bitarteko gazteentzat prestatu duten lehiaketan parte hartu nahi dutenek euskeraz idatzita dagoen euren gustoko liburu bat aurkitu eta irakurri beharko dute eta, ondoren, bideo labur baten bidez liburu hori gomendatu eta Youtuben zintzilikatu. Bideoak grabatzeko kamera, mugikorra edo tableta erabili daiteke eta lehiaketarako bideoak aurkezteko epea urriaren 24ra artekoa da. Lehiaketari buruzko informazio guztia interneten, <https://booktuberboom.wordpress.com/lehiaketa/> helbidean dago eskuragarri, baina informazioa modu zuzenagoan zabaltzeko, bihar arratsalderako Iban Garcia youtuberrarekin "kedada" antolatu dute liburutegian, 17:00etatik 19:00etara. Antolatzaileek azaldu dutenez, "berak gidatuko du

saioa eta booktube bat egiteko pista guztiak emango ditu bertan".

Ekimena abiatu dutenek, gazteen artean irakurzaletasuna sustatzetik haratago, EAEko "booktuber" plataforma sortzea nahi dute, "euskal 'booktuber' komunitatearen lehen hazia landatuta".

BOOKTUBERBOOM.

EAEko I. Booktuber lehiaketa

– Nork har dezake parte?

14-18 urte bitarteko gazteek. Beharrezkoa izango da liburutegi publiko bateko bazkide txartela izatea.

– Zer egin behar da?

Liburu bat irakurri, hartu kamera, mugikorra edo tableta eta grabatu liburu horri buruzko iruzkinaren bideoa. Argitaratu zure Youtube kanalean, zure herriko liburutegi-koan edo zure ikastetxeko kanalean, eta bete Booktuberboom blogeko parte-hartze orria. Bertan jarri beharko duzu zure bideoak youtuben duen URL helbidea.



– Nolako baldintzak bete behar ditu bideoak?

- Gazte nahiz helduentzako euskaraz argitaratutako liburu bati buruzkoa izan behar du.
- Booktubea euskaraz egin behar da. Ez dago euskara batuan egin beharrik, euskalki guztiek dute lekua lehiaketan, baina euskara zuzen eta egoki erabili beharko da.
- Iraupena: gehienez 1,5 minutuko (90 seg.) iraupena izan behar du eta gutxienez minutu 1ekoa (60 seg.).
- Aurrez beste inon argitaratu gabeko bideoa izan behar du.
- Youtuben argitaratu eta Booktuberboom blogeko parte-hartze formularioa betez bidali beharko da bideoaren URL-a lehiaketara 2017ko urriaren 24ko 00:00ak baino lehen.
- Ezin daiteke beste lehiaketa batean parte hartu.

www.kolorlan.com

667 54 89 16

KOLORLAN
PINTURA LANAK S.L.

San Andres Gozotegia

- **tartak**
- **enkarguak**
- **etxera**


Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

Eta gaixotasunak jaio aurretik ezabatzeko aukera egongo balitz?

Ikerketak ez du udako oporrik hartzen, eta garai honetan bertan eman da argitara aurtengo aurkikuntza garrantzitsuenetakoa izan daitekeena. Hain zuzen ere, AEB, Hego Korea eta Txinako hainbat ikerketa taldek bat eginda, giza enbrioien genoma editatzeko CRISPR-Cas9 izeneko sistema erabili dute, bihotzeko gaixotasun hilgarri bat sortu dezakeen mutazioa zuzenduz.

Orokorrean geneetan ematen diren mutazioek gaixotasunak eragiten dituzte, eta gaitz genetikoak izanik ondorengo belaunaldietara pasatu litezke. Ikerlan honetan MYBPC3 genea aztertutako mutazioa dagoenean kardiomiopatia hipertrofikoa sortarazten duena. Gaixotasun honetan bihotzeko hormak loditu egiten dira, adibidez, kirolari gazteengan bat-bateko heriotza eragiten duen lehen kausa izanik.

Horrela, zientzialariek MYBPC3 genearen kopia zuzena duten obuluak, gene mutatuak duten espermatozoideekin eraldatu dituzte, CRISPR-Cas9 sistema ere txertatuz. Azken honek, "artazi" baten funtzioa betetzen du, mutazioaren leku konkretua moztu egiten du eta beraz ezabatu. Hartara, posible da espermatozoi-



dearen genea zuzenki bererraitzea, obuluaren kopia zuzena ereduzat hartuta. Ondorioz, heredagarria izan zitekeen gaixotasuna errotik desagerraraztea lortu dute, eta ondorengoenganako transmisioa saihestu.

Ikertzaileek argi utzi dute, sortutako enbrioi guzti hauek ez direla egun gutxi batzuk baino haratago garatu laborategian edota inolako emakumeren umetokian ezarri. Bestalde, erabilera klinikorako oraindik aurretik lan asko dagoela baieztatu duten arren, pentsa dezakezue zer nolako deia darra izan duen albiste honek etikari lotuta. Pertsonen diseinuari buruzko eztabaida irekia dago berriz ere komunitate zientifikoan, nahiz eta ikerlan honek edizio genetikoaren alde positiboak frogatu dituen gaixotasunak ezabatzerako orduan.

Albistean gehiago sakondu nahi duenak, "Nature" aldizkari zientifikoan eskuragarri du artikulua (DOI: 10.1038/nature23305).



iraia muñoz

IKERTZAILEA

Erljioa ikasgai Euskal Eskola Publikoan

Oraingo honetan eztabaida handia eta sentimendu kontrajarriak sortzen dituen gai batekin nator: erlijio katolikoa ikasgai izatea Euskal Eskola Publikoan.

1978ko Konstituzioa geroztik, Espainiako Estatuak laikoak izan behar luke (ez konfesionala bederen), hau da: inongo erlijiorik ez luke estatutu mailakoa izan behar, osterantzean erlijio-instituzioek estatuaren agente organoetan (judiziala, exekutiboa, legegilea) zeresana izango lukete... Frankoren garaian bezala adibidez, non Elizak diseinatzen zuen hezkuntza sistema oso osorik. Ziur gure aitona-amonek ondo gogoan izango dituztela garai horietako "doktrinak".

Zoritxarrez Konstituzioak dioena ez da egun praktikara eramaten. Besteak beste, 1978ko Konstituzioa onartu eta hilabetera, ezkutuan,



iratxe vazquez

PSIKOPEDAGOGOA

Espainiako estatuak eta Vaticanoak, beste inoren parte-hartzerik gabe sinatutako konkordatuak oinarrituta, Elizak inposatu egin zuelako erlijio katolikoa beste ikasgaien (historia, matematika...) pare izatea; ez hori bakarrik, 1. eta 2. hezkuntzan ikasgaia derrigorrez ematera behartzen du Estatuak. Gutxi balitz, irakasleak, nahiz eta administrazio publikoak aukeratu, Eliza berak proposatutako poltsa batetik aukeratzeko dira, eta ikasgaiaren curriculumak Elizak berak diseinatzen du.

LOMCE legeak hori guztia praktikara eraman besterik ez du

egin. Erljio katolikoaren ikasgaiak beste ikasgaien pare jarri du, espedienterako konputatzen du, literaturak edo biologiak beste (ikasgaira apuntatzen diren ikasle kopuruak gora egin du). Ikasgaiak baloratu egiten du ikasleak errezatzen edo otoi egiten jakitea adibidez.

Gaia oraindik nabariagoa da Kontzertatuak diren zentroetan, non normala den ikustea kristau erlijioaren inguruko sinboloak, edota derrigor izatea ikasleak zeremonietara joan behar izatea. Ezin ahaztu zentro hauen aurrekontuaren zati handi bat diru publikoa dela, hortaz, administrazio publikoaren printzipio berdina bete beharko lituzkete. Hala ere, Kontzertatuak gaia beste baterako utziko dugu...

Horiek horrela, Euskal Eskola Publikoak laikoak izan behar du. Kultura, jatorri, sinesmen eta ideologia guztietako kideak ordezkatuta senti daitezkeen eta inork bere burua baztertuta ikus ez dezan. Norbanakoen eta kolektiboen arteko ezberdintasun kultural eta erlijiosoak orekatzea Hezkuntza Publikoaren egitekoa eta ardura da, elkarbizitza abiagunean jarrita, kultur aniztasunaren balioa eta aberastasuna ikasleei, irakasleei eta gurasoei helaraziz. Horretarako beharrezkoak diren unitate didaktikoak eta integrazio programak landu beharko dira eskolan.

Euskal Eskola Publikoan erlijioak ez du ikasgai izan behar. Berdintasunean, elkartasunean eta justizian oinarritutako gizarte bat lortzeko bidean eskola publikoak integrazioa izan behar du, inor ez da baztertuko arrazoi ekonomikoengatik, sexuagatik, erlijioagatik, pentsamenduagatik, kulturagatik eta adinagatik. Ikasle guztiak berdintasunean heziko dituen eskola baten alde bainago.

Erljio guztiak, katolikoa barne, eskolatik kanpo landu beharko lirateke, fede edo doktrina bezala lantzen diren heinean. Soilik kultura historiko baten ikuspuntutik dute kabida. Eskolak biltzeko gunea izan behar du, erlijioak edo bestelako sinesmenek sor lezaketan banaketarik gabe.





**Urriak 7
zapatua**

Txotx!



24. edizioa › 2.340 sagardo botila › 200 kg.

**BI TIKET
mota**


6 eurokoa

Edalontzia
+
zapia
+
pintxoak
+
SAGARDOA

**1'5
eurokoa**

Pintxoak:
TXORIZOA EDO
GAZTAIA ETA
MENBRILLOA

Goiz eta arratsaldez: Udaletxeko plazan



#SagardoEguneko IV. selfie lehiaketa

Azken hiru urteetan bezala, aurten ere selfie lehiaketa antolatu dugu eta, horregatik, argazkiak ateratzean selfie itxurakoak egitera eta gurekin partekatzea animatu nahi zaituztegu. Irabazleak 13 sagardotegietako botila bana jasoko du. Zozketa urriaren 9an, datorren astelehenean egingo dugu. Gainera, selfie guztiak hurrengo paperezko aldizkarian argitaratuko ditugu (urriaren 20ko alean).

Horretaz gain, zazpigarren urtez jarraian, aurten ere sare sozialetan jarraipen berezia egingo diogu biharko egunari, #SagardoEguna traola erabilita. Facebook-en, ...eta kitto!-ren orrialdean (www.facebook.com/etakittoaldizkaria) zein Twitter kontuan (@etakitto) Untzagan nolako giroa dagoen kontatzen, argazkiak sartzen...

joango gara, zuekin partekatzeko. Baina giroa bete-bete bizi duzuenak zuek zarete eta, horregatik, berriz ere Sagardo Eguneko "korrensponsal" izatea eskatu nahi dizuegu, zuen komentario eta argazkiekin egunaren kronika paregabea osatzea lortuko dugu eta. Ondo pasa!!! Gora Sagardo Eguna!!!




ANTZARA-JOKOA eta SAGARDOAREN HIZTEGIA, aurtengo berrikuntzak

Sagarraren kulturaz modu dinamiko eta pedagogikoan gozatzeko asmoz, Sagardoaren Lurraldeak lagatako antzara-jokoa parte hartzeko aukera eskainiko zaie haurrei zapatu goizean Eibarren ospatuko dugun XXIV. Sagardo Egunean. Ekitaldia goizean izango da. Antzara-jokoa aurtengo Sagardo Eguneko berrikuntzetako bat da, eta helburua Untzagan bilduko diren umeek ondo pasatzea eta, aldi berean, sagarra eta sagardoarekin zerikusia daukaten gauzak ikastea da. Antzara-jokoa lurrean jarriko dute eta begiraleak egongo dira han, haurrei laguntzeko eta jokoaren arauak azaltzeko.

Horretaz aparte, Sagardoaren Etxeak lagata, sagardoaren hiztegia biltzen duten panel batzuk ikusgai egongo dira arboletatik zintzilik.

Tolaretik irtendako muztioa probatzeko aukerarik ez da faltako aurten ere, eta Baztan inguruko sagardogileek erabiltzen zuten kirrikoketa martxa betean jardungo du Untzagan.



Kirrikoketa nola erabiltzen zen erakutsiko dute aurten ere.





Tolaretik ateratako muztioa probatzeko aukera ere izango da.


13 sagardotegi


Alorrenea (Astigarraga) **Altzueta** (Hernani) **Barkaiztegi** (Donostia) **Begiristain** (Ikaztegieta) **Egi-Luze** (Errenteria) **Gartziategi** (Astigarraga) **Gaztañaga** (Andoain) **Gurutzeta** (Astigarraga) **Isastegi** (Tolosa) **Olaizola** (Hernani) **Sarasola** (Asteasu) **Zapiain** (Astigarraga) **Zelaia** (Hernani)

SAGARDOaren kontsumorako gomendioak

 Sagardo bakoitzak dituen ezaugarrien arabera, kontsumitzeko sasoi egokiago bat izango du, normalean botilaratu eta **urtebeteko epean**.


 Behin botila irekita **denbora tarte laburrean** kontsumitzea komeni da, eta kortxoa edo tapoia jarrita edukitzea, irekita gordez gero propietateak galduko baititu.

 Sagardoa **10-13° C** gradu artean kontsumitzea gomendatzen da, freskoa.


 Sagardoa iragazi edo filtratu gabeko edaria denez, sedimentuak ondortzen joango dira denborarekin. Ireki aurretik **botila buruz behera** jarri eta astindu egingo dugu, sagardoa homogeneizatzeko.


 Edalontzitik **20-30 zentimetrora zerbitzatu**, sagardoa hautsi eta txinparta ateratzeko.

 Sagardoa edateko **edalontzia zabala eta kristal finekoa** izatea gomendatzen da.

 **Trago batean** edango den sagardo kopurua zerbitzatu aldiro.



 **Edozein janari** motarekin ezkontzen da ondo.

 Edari **freskagarria** da, alkohol **graduazio baxukoa**, urte osoan kontsumitzeko egokia.

Kontserbaziorako gomendioak

- **Toki fresko eta ilunean** gorde, 12-14 °C artean. Temperatura altuegi edo baxuegian bere ezaugarriak galduko ditu.

- **Uretan** freskatu.

“SAGARDO IBAIAK, BIZITZA ITURRI” erakusketa

Hernani, Usurbil eta Astigarragan egon ondoren, “Sagardo ibaiak, bizitza iturri” erakusketa ibiltaria Donostiako Aquariumera iritsi da, Nautilus aretora. Sagardoaren Lurraldearekin sagardoaren kultura sustatzeko asmoz egin dute, eta Aquariumarekin elkarlanean sortu-tako proiektua izan da.

Urumea eta Oria ibaiak baloreen jartzen dituzte. “Lehen bizi ginen ibaiari begira, eta, orain, badirudi ez dela existitzen”, nabarmendu du Jose Mari Alberrok, Sagardoetxeko zuzendariak. Lur-

des Odriozola historialariak esan du urte askoko ikerketa baten ondorio dela erakusketa: “Oria eta Urumea dira protagonistak, baina beste bitxikeria batzuk ere kontatzen dira. Lehen, ibaiak bizitza iturri ziren, baina une batean elikagai horiek ez ziren nahikoak eta ibaiak antzinako autobide bilakatu ziren. Gainera, ibaiaren inguruan jendea bizitzen jarri zen, eta sortu ziren harreman sozialak ere islatu ditugu”.

Erakusketa abenduaren 15era arte egongo da zabalik, Aquariumeko Nauti-



lus aretoan. Egunero egongo da irekita, 10:00etatik 19:00etara, eta Aquariumeko sarrera ordaindu beharko da bisitatzeko.



Avia Eibar Rugby kluba osatzen duten taldeak aurkeztu zituen

Untzagan egindako aurkezpenean 120 jokalarik inguru izan ziren argazki ofiziala ateratzeko eta eurekin izan ziren zuzendaritzako kideak, klubaren babesleak, Kirol Patronatoko zuzendaria eta alkatea. Aviak jarraituko du babesle nagusia izaten eta Guridi taberna laguntzaile garrantzitsuen, "ahaztu barik Udalaren eta Eibar FTko Fundazioaren diru-laguntza". Gizonezkoen senior A taldeak estatuko Ohorezko B mailan jarraituko du, emakumezkoen senior taldeak ez du baztertzeko play-offean sartzea, gizonezkoen senior B taldea indartzeko asmoa dute (jubenilen eta lehen taldearen arteko zubi lana egiteaz gain) eta, hiru horietatik aparte, akademia eta eskolako taldeak ditugu, "inoiz baino gehiago gainera": 18 urtera, 16ra, 14ra, 12ra eta 10era bitarteko jokalariek hartuko dituzte aipatutako bost taldek.

Bi garaipen eta porrot bakarra

Avia Eibar Rugbyko talde nagusiak 3-17 galdu zuen aurreko asteburuan Unben sailkapenean bigarren dagoen Babyauto



Herriko errugbiak osasunez beterik ekingo dio denboraldi berriari. **Ramon Beitia**

Zarautzekin. Jakina zen talde indartsuegia zela kostaldekoena, baina eibartarrek ondo egin zioten aurre eta atsedenaldira 3-0 joan ziren aurretik, defentsan lan bikaina egin ondoren. Hurrengo partidua Ourense izango dute eibartarrek eta badakite emaitza onak lortzen Galiziako lurretan.

Euskal Ligako 2. mailan jokatuko duen senior mailako bigarren taldeak 13-14 irabazi zuen Zornotzan, ia amaierara arte atzetik joan eta gero. Azken orduko transformazioak garaipena eman zien. Eta nesken taldeak 7-0 irabazi zion Ordiziari Rugbyri denboraldiko lehen partiduan.

Eusebio Oyarzun Eibar FT-ko presidentea izandakoa hil da

Aurreko asteko egunean hil zen, 85 urterekin, Eibar FT-ko 13. presidentea izandakoa. Eusebio Oyarzun "Marrukoren" agintaldiak 1974tik 1977ra arte iraun zuen, klubeko talde nagusiak 3. mailan jokatzen zuenean. Urte gogorrak izan ziren haiek Eibar FT-rentzat, 1976-77 denboraldiaren amaieran taldea Erregional mailara jaitsi zelako. Presidente-ohi moduan 2015ean egin zuen azken agerpena, Luis Mari Aranegi, Pako Markiegi, Javier Arrieta, Juan Luis Mardaras eta Alex Aranzabal klubaren presidente izandakoekin batera Txopitea eta Pakea Eibarko Udalak ematen duen sari nagusia Coliseoan jaso zuenean, Eibar FT-ren 75. Urteurrenako ekitaldien barruan. Klubaren Administrazio Kontseilutik jakinarazi dutenez, urriaren 15ean isilune minutua gordeko da bere izenean Eibarrek A Coruña-ko Depor hartuko duen partiduen hasieran.



Autobusa antolatu dute Behobia-Donostiara joateko

Eibarko atletismo-zaleen inguruan murgiltzen direnek autobusa antolatu dute azaroaren 12an jokatuko den Behobia-Donostia proban parte hartu nahi dutenentzat. Autobusa goizeko 08:00etan irtengo da Ego-Gaineko bus geltokitik eta txartelak Calbeton kaleko Askasibar kirol-dendan erosi daitezke, 10 eurotan. Ez dago eperik: autobusaren 60 plazak betetzen direnean, kitto.

GUZTION JAIAK DIRELAKO!
denolan, s.l. 500€
ENPRESA AHOLKULARITZAK
inbertitu ditu futbol-kamiseten
zozketarako zenbakietan
**AMAÑAKO JAIEN ALDEKO
HELBURUA BETETZEKO**



Urbateko waterpolistek denboraldiko lehenengo saria irabazi dute: Gipuzkoako Kopa

Jubenil mailako taldea izan da Gipuzkoako Kopa bereganatu duena, klubeko indartsuena dela erakutsiz berriro. Oraingoan Donostiako Paco Yoldi igerileku olinpikoan aurreko asteburuan jokatuako bi partiduetan nagusitu zen Eibar-ko taldea, finalerdietan Easori irabazita eta finalean Waterpolo Donostiri. Izei Sologaitua, Igor Sanz, Manex Dominguez, Julen Soraluze, Martin Zamakola, Mikel Albizuri, Oier Lete, Mikel Amuategi, Jon Treviño, Eneko Treviño, Xabier Egidazu, Anton Akizu eta Unax Unzeta izan dira hamahiruko osatu dutenak.



Jose Antonio Arrillaga eibartarrak irabazi du artzain-txakurren Euskal Herriko XI. txapelketa



Elgoibarko San Miguel-Aias-tian bizi den Eibarko artzaina nagusitu zen domekan Aiastian bertan, Ziardamendiko magaletan, jokatuako txapel hori. Arraza guztietako txakurrekin jokatzen den lehiaketa horretan, Arrillagaren "Txiki" border-collieak 256 puntu bildu zituen, Matxinbentako Pello Segurolaren "Argik" eta Aizarnazabalgo Manuel Gorritiren "Argik" baino sei puntu gehiago. Izen bereko bi txakur horiek puntu kopuru bera atera zuten hiru probak (banderen artean joatearena, atearena eta arditegiarena) jokatuta eta gero, baina Segurolaren txakurra azkarrago ibili zen.

V. Asier Cuevas motorrak berotzen

Herri-lasterketa horretan parte hartzeko asmoa dutenek izena eman dezakete www.saikapenak.com/evento/v-asier-cuevas-herri-lasterketa-2017 helbidean. Proba hilaren azken zapatuan, 28an, jokatu da, 18:00-etan hasita, eta herriko kaleetatik zazpi kilometro eta erdi egingo dituzte.

Aitor Hernandezek garaile hasi du ziklo-kros denboraldia

Especialized- Ermua Impulso-Verge taldeko txirrindulari ermuarrak Kantabriako Los Corrales de Buelnan jokatuako CX Race Valle de Buelna ziklo-kros probaren hirugarren edizioa bereganatu zuen aurreko domekan Javier Ruiz de Larrinaga bigarrenari 45 segundoko aldea aterata eta pixka bat gehiago podioa osatu zuen Kevin Suarez. Aurtengo egitarauan, bestalde, Aitor Hernandezek estatuan jokatuko diren UCI mailako bederatzita lasterketetan hartuko du parte, Espainiako eta Euskadiko txapelketekin batera. Lehen probatik ikusi da Larrinaga eta Suarez iaz berarekin lehiari izan zirenak hor egongo direla berriro. Euren gehituko zaizkie oraingo honetan Felipe Orts, azken denboraldian munduko zilarrezko domina 23 urtetik beherakoenen artean.



LOLA ANIBARRO OJANGUREN
1. urteurrena
2016-10-08

“ Zure irribarreak eta maitasunak gure bihotzetan diraute “
ETXEKOEK MAITE ZAITUGU

Somos Eibar liderra da eskubaloiko 1. Nazional mailako bere multzoan

Lider bakarra gainera, ez dagoelako beste inor jokatutako partidu guztiak irabazi dituenik. Azken jardunaldian eibartarrak 32-20 nagusitu zitzaizkien Jacar San Antoniokoei, kontatzeko askorik izan ez zuen partiduan. Hasieratik Somos-ekoak 5-0 aurreratu ziren eta, nafarrek osatzen zuten taldea baino sendoagoak zirela erakutsiz, neurketa kontrolpean izan zuten partidua amaitu arte. Iaz goitik behera berritutako taldeari argi igartzen zaio urratsa eman duela aurrerantz eta badoiala Fernando Fernandez prestatzailearen aginduak bereganatzen. Hurrengo jardunaldian eibartarrek Donostiara joko dute, Egia-Urzaleak taldearen kantxa bisitatu eta lidergoari eusteko armoz, jakina.



Eibar Eskubaloiko talde nagusiak indarrez beterik hasi du denboraldia. Azken denboraldian bereganatutako esperientziak mesede egin dio.

Alkideba da lider bakarra foball-zaletuen liga txapelketan

Neurketa parekatuak izan ziren aurreko asteburuan jokatutako foball-zaletuen jardunaldian eta, zazpi partiduetatik, bakarrak erakutsi zuen nagusitasun argia, justu Alkideba liderrak Bar Arkuperi 7-1 irabazi zionak. Beste bitan berdinketa izan zen (bina berdindu zuten Hiruk eta Ipurrek eta bana Garajes Garciak eta Azkenak), 2-1 irabazi zieten Fereduk, Sporting Larragest-ek eta Bar Txokok Slow XOK, Es-morga eta Durangori hurrenez hurren, eta 3-1 nagusitu zitzaion Machado Tankemans Bar Aretori. Asteburuari begira, domekan 09:00etan jokatuko den L. Machado Tankemans eta Alkideba lideraren artekoa da interes gehien piztu duena.



Fran Garagarza eta kirol arloko teknikariak prentsaurrekoan.

14 taldek osatzen dute Eibar FT-ko harrobiaren oinarria

Aurreko asteko martitzenean aurkeztu zituen Eibar FT-k harrobiko talde guztiak Ipuruan egindako ekitaldian. Lehen Mailako taldea, 2. B mailako CD Vitoria filiala eta emakumezkoen 2. mailan jokatzen duen taldea kenduta, denboraldi berriari ekin dioten beste guztiak aurkeztu ziren arratsalde horretan. Preferente mailako Eibar Urko, mutilen jubenil, kadete eta infantil mailako bina talde eta alebinetako batekin aurkeztu ziren emakumezkoen lurralde eta kadete mailakoak, guztira 255 futbolista hartzen zituzten taldeak. Horiez gain, foball eskolan beste 180 neska-mutil daude. Fran Garagarza kirol zuzendariak denboraldi berriari begirako hausnarketa egin zuen komunikabideen aurrean eta "egindako aurrerapausoak" nabarmendu zituen. Bestalde, Eibar FT-ko talde nagusiak A Coruñaiko Deportivo hartuko du urriaren 15ean Ipuruan, aste honetako atsedenaldiaren ondoren.

Alberto Ferreirok squash-eko Euskadiko txapela jantzi du berriro



Aurreko asteburuan Sestaon jokatutako Euskadiko squash txapelketan Eibarko Klub Deportiboko squashlariak txapela jantzi zuen beste behin, oraingoan gainera nagusitasun osoa erakutsita. Zapatu arratsaldeko finala galtzen hasi bazuen ere, 3-1 irabazi zion azkenean Oberena taldeko David Marini. Aurretik 3-0 nagusitu zitzaizen Victor Mendozari final-laurdenetan eta Aitor Yanguasi finalerdietan. Miguel Cabanillas Deporrek bigarren ordezkaria 11. postuan geratu zen.

IÑAKI AGUINAGA BASCARAN

(I. URTEURRENA: 2016-X-12)



*"ZURE irribarrea eta samurtasuna
betiko izango dira GURE ARTEAN"*

¶ Ana Maria, Javier Vicente eta Gartxot



1926. urtean Argentinara emigratu zuen **Lucas Arregi** eibartar gazteak. 16 urte besterik ez zituen, eta, europar askok egin zuten bezala, bizimodu hobe baten bila joan zen Ameriketara. 1936an Eibarrera bueltatu zen, baina garai hartako liskarrak ikusita, Argentinara bueltatzea eta han gelditzea erabaki zuen. Lucasen alaba, **Carmen Beatriz Arregi "Poli"**, Eibarren egon da bisitan azken egunotan. Eibarrekin duen hartuemanaz, sentipenez eta etxetik urruti bizimodu berri bat eraiki zuen aitaren historiak egin dugu berba Polirekin. Lucasen haziak bizirik dirauela ikusi ahal izan dugu.



Poli Arregi (argazkian zutik) gazetetan Eibarren ezagututako lagunekin: Cristina Azpiri, Carmen Arzuaga, Mari Carmen Azpiri, Maria Jesus Ciorraga eta Mariasun Murua.

POLI ARREGI, bihotza Eibarren daukan argentinarra:

“Nire sustraiak hemen daude eta familia bisitatzen asko disfrutatzen dut”

– Egun hauetan Eibarren zabitza zure aita izandakoaren familiarekin. Lehendik ezagutzen zenuen Eibar?

Bai, 14 urte nituen gurasoekin eta anai-arebekin Eibarrera etorri nintzenean, 1962. urtean, eta gerora ere etorri naiz pare bat bider. Lucas Arregi nire aita 1910. urtean jaio zen Eibarren eta oso gazte joan zen Argentinara. Zazpi seme-alaben artean zaharrena zen. Gure aitak Euskal Herria maitatzen erakutsi zigun eta gure sustraie-tara etorri ginen. Amama hilda zegoen,

baina aittita oraindik bizirik. Sei hilabete igaro genituen Eibarren, Urkizu kalean, familiaren etxean. Egondia zoragarria izan zen eta grabatuta geratu zaitzaidan. Eibar nire aitaren herria da, oso berezia niretzako. Nire izena Carmen Beatriz da, amama bien izenak dauzkat, baina denek “Poli” deitzen didate (*polita* berbatik dator).

– Nola gogoratzen dituzu sei hilabete haiek?

Askok disfrutatzen nuen. Nire gurasoek ez zeukaten oporretara joateko ohiturarik.

Argentinan oso leku lauan bizi ginen, eta hemengo mendiek eta kolore berdeak lilaratuta laga ninduten. Oso sentsazio onarekin joan nintzen, familiarekin bizitzeko aukera izan nuen, aittitaren, osaba-izebekin...

– Gainera, bisitetan Jose Arregi, Argentinan zuekin egon zen osaba berriro ikus-tekote aukera izan zenuen...

Bai. Jose, nire aitaren anaia, gurekin egon zen Argentinan 10 urte inguru, baina amama gaixotu zenean Eibarrera bueltatu zen, harategia atenditzeko eskatu ziotelako. Josek Urkizun izan zuen harategia, eta postua merkatu plazan. Eibarren “Beatrizen harategia” bezala izan da ezaguna, nire amamaren harategia zelako. Eta birramonak Calbetonen izan zuen harategia. Oso harreman berezia genuen Joserekin, oso pertsona ona zen, eta, niretzako, Eibarrera etortzea Jose osabaren etxera etortzea izan zen. Askok maite nuen! Orduan ezagutu nuen Joseren seme nagusia, Iñaki lehengusua. Isabel eta Jorge oraindik jaio gabe zeuden. Etorri bezain pronto, Mari Tere nire izebaren ilobak ezagutu nituen eta segiduan egin nituen lagunak hemen, betirako “Eibarko kuadrilla” izango zena. Inoiz ez dut ahaztuko Eibarren bizitako guztia. Orain, egun hauetan, nire kuadrillarekin elkartu naiz eta eurekin harremana izaten jarraitzen dut.



Argazkian Domingo eta Beatriz, Lukas eta Jose Arregiren gurasoak. Harakinak ziren eta denda Urkizun zeukaten. Ama gaixotzean Josek hartu zuen dendaren ardura, eta Eibarren “Beatrizen harategia” bezala izan da ezaguna.

– Zelako desberdintasunak ikusten dituzu Eibar eta Argentinan zu bizi zaren lekuaren artean?

Eibar guztiz desberdina da. Ni Cordoban bizi naiz, 2 milioi biztanle dituen hiria da. Harremanak desberdinak dira. Hemen ikusten dudanez, nire adinekoak arratsaldero irtetzen dira kalera: prestatu, lagunekin elkartu eta aisialdia konpartitzen dute. Han distantziek harremanak oztokatzen dituzte. Hemen euriarekin ere jendea kalera ateratzen da. Oso bizitza sozial aberatsa daukazu.

– Familia lagatzea eta ezagutzen ez zuen urrutiko herrialde batera joatea ez zen zure aitarentzat erraza izango. Zer kontatzen zizuen aitak?

Bere familiari buruzko gauzak kontatzen zizkigun gehienbat. Bere amarekin azokara joaten zela otarrarekin, bere aita tailerrera joaten zela beharrera, amama Beatrizek harategia zeukala Urkizun... Oso gazte joan zen eta bere aitak baimen berezia eman zion bakarrik bidaiatzeko. Reina Maria Cristina barkuan joan zen eta oraindik dokumentazioa gordeta daukat. Nicomedes Guruzeta bere aittitta zenak esaten zion ez zeukala prestakuntza nahikorik hemendik joateko, baina jende askori ondo joan zitzaion Ameriketara eta berak ere bizitza hobea nahi zuen. Familiako



Lukas Arregi Delia emaztearekin, eta eurekin Poli, Lucas semea eta Jose Luis txikia.

batekin joan zen baina Buenos Airesera iristean bakarrik utzi zuen. Oso txarto pasatu zuen. Harategiko lana ezagutzen zenez, harategi askotan egin zuen lan, eta jatekoaren truke egiten zuen beharra. Inmigrante asko zegoenez, lantokietan egiten zuten lo... Etengabe bere amarekin gutunak elkartrukatzen zituen. Gero pixkanaka Buenos Airesetik probintzia barruko herrietara joaten hasi ziren Horregatik daude hainbeste euskaldun barrualdeko hirietan. Ondoren Cordobako probintziara joan zen. 37 urterekin ezkondu zen, herri txiki batean bizi izan ziren eta Villa Marian lehen euskal etxea sortu zuten eta zentru horretako alkatea izan zen. Ni txikia nintzean sarri joaten ginen euskal etxera. Euskal jantziak jartzen zizkiguten eta dantza egiten genuen, mezatara joaten ginen eta ekitaldi guztietan parte hartzen genuen, kanpora ikastera joan nintzen arte. Nire amaren gurasoak inmigrante galiziarak ziren.

– Hasierako urte gogor horiek eta gero zertan jardun zuen zure aitak?

Hasierako urte txarrak pasatu ondoren,

nekazaritzan egin zuen lan. Nekazal munduko zeregin guztiak ikasi zituen eta arduradun bezala ere egin zuen lan. Maistra bat kontratatu zuen. Asko ikasi zuen –nire aitarekin edozer gauzari buruz hitz egin zitekeen: artea, politika, ekonomia... Buenos Airesen antzerkera joateko bonoa zeukan. Geroago lur-sailak erosi zituen. 500 edo 700 hektarea inguru zituen, eta ganadua ere bazeukan. Gero lurrak saldu zituen. Arazoa da nire aitaren garaietan lurrak ez zeukala gaur egun daukan balio izugarria. Gaur egun lurrak kalkulazina den balioa dauka.

– Harremanetan segitzen duzue Eibarko senideekin, ezta?

Whatsapp-ari esker komunikazioa asko erraztu da. Lehen, gure artean berba egitea oso konplikatu zen. Telefono horrekin linea bat eskatu behar zitzaion zentralitako neskari, gero ordu-aldaketa... Whatsapp-arekin ederto konpontzen gara orain. Nire 5 seme-alabek harreman estua daukate nire lehengusuekin. Antzeko adina daukate. Guk parrillan egiten dugun okelaren argazkiak bildatzen dizkiegu eta eurek guri soziedadeko lapikoarena!



Lukas, Teresa, Antonia, Maritxu eta Jose anai-arrebak. Gazteenak falta dira: Juana eta Iñaki.

IV. BAZKARI SOLIDARIOA

Jana ez da txantxa

Lagundu Peruko landa-komunitateei



Urriak 21
Larunbata 14:00

Antolatzailea



Babeslea
Eibarko Udala
Elkarlana
Eibarko Elkarte
Gastronomikoak

Ticket 10€

Kultu Guri di Villalba Koskor Kontent

7€ Prezio murriztua ume, jubilatu eta langabetuentzat

Ezin bazara etorri, lagundu egizu zure Zero Plater ticket-a erosita (Borondatezko ekarpena bazkaldu gabe)

12.00: Umeendako sukalde-tailerra
12.45: Ipuin-kontalaria



INMA MONTALVO
(dantzaria)

– *‘Lorez lore’ ikuskizuna ekarriko duzue Eibarrera, dantza umeei hurbilaz nahi dien espektakulua. Nola lortu nahi duzue hori?*

Dantzaren lengoaia, arlo horretan moldatzen garelako, eta antzerkia, interpretazioaz baliatzen garelako umeengana heldu ahal izateko, erabiltzen ditugu. Umeentzat deigarria den eta euren ulertze-mailari egokitzen den istorioan txertatzen dugu dantzaren lengoaia. Dantzaren mugimenduaren bitartez istorioak kontatu, eta emozio eta sentimenduak transmititu daitezkeela ikusarazteko.

– *Umeei zuzendutako ikuskizunak askotan helduentzat ere egokiak direla esaten da. Horrela da kasu honetan?*

Istoria, berez, umeei zuzendutako ipuina da. Urteko lau sasoi eta neska baten lagun izan nahi duen mutil bati bu-

“Ondo pasatzea da ikasteko modurik onena”

Coliseoak ‘Lorez lore’ dantza ikuskizuna aurkeztuko du hilaren 21ean 17:00etan. Dantza hurrei hurbiltzeko helburua duen ikuskizuna dinamikoa da Inma Montalvo zuzendari eta dantzariak azaldu digunaren arabera. Urteko lau sasoi inguruan dantzatuko dute eszenatoki gainean ume eta, zergatik ez, nagusiei momentu dibertigarri eta hezitzailea eskaintzeko dantzaren mugimenduaren baitan.

ruz egiten da berba bertan. Ikuskizun dinamikoa da, ez da gatzgabea: beraz, hurrei zuzendutakoa bai, baina ikuskizuna publiko ororentzako dibertsioa da.

– *Nolako de 3 eta 6 urte arteko publikoa?*

Publiko heldua baino zailagoa. Haurrak oso zintzoak dira. Ikuskizuna gustatzen bazaie, esango dizute; baina ez bazaie gustatzen, berdin esango dute. Oso esker oneko publikoa da, oso irekia. Ez diezu zertan dena eginda eman behar, euren istorio propioa sortzen dutelako.

– *Dantzarion prestaketa hartzailearen arabera aldatzen da?*

Ikuskizunaren dramaturgia eta mugimendua da aldatzen dena aurrean izango duzun publikoaren arabera. Ez duzu berdin berba egiten heldu batekin eta ume batekin, eta dantzan berdin gerta-

tzen da. Ikuskizuna sortzen duzunean publikoa zein den kontuan hartzen duzu, eta bere berba egiteko modura edo hizketara egokitzen zara. Prestakuntza fisikoari dagokionez, ordea, berdin prestatzen dugu gorputza.


– *Umeei zuzendutako ikuskizunetan zein puntutaraino bilatzen da didaktikoa izatea eta zein puntutaraino ludikoa besterik ez izatea?*

Guk arlo biak lantzen ditugu. Hurrei zerbait hezigarria eskaini nahi diegu modu ludikoan, kontzeptu horien bitartez hobeto ikasteko. Gure asmoa ez da hezitzea. Urteko sasoi buruz berba egiten dugu, baina ez dugu gehiegi sakontzen. Gaia modu dibertigarrian aurkezten saiatzen gara, umeak informazioz kolapsatu barik. Ondo pasatzea da ikasteko modurik onena.

Perretxikoak izango dira protagonista asteburuan

Eibarko Klub Deportiboaren Mendi taldeak, Aranzadi Zientzia Elkartearen eta Eibarko Udalaren laguntzarekin antolatutako XIX. Jardunaldi Mikologikoak atzo abiatu ziren, Josean Bereziartuak eman zuen hitzaldiarekin, baina ekitaldi nagusiak zapatu eta

domekan pilatu dituzte. Bihar ume eta gurasoek mendi irteera egingo dute, Lizarrustira, perretxikoak biltzeko asmoarekin. Ondoren, arratsaldean batutako espezieak sailkatuko dituzte Deporren, Aranzadiko kideen laguntzarekin. Eta domekan, 10:30etik aurrera perretxikoen erakusketa, dastaketa eta salmenta egingo da Toribio Etxebarria kalean.



Pate dastaketarako izen-ematea zabalik dago

Datorren urriaren 18rako ...eta kitto! Euskara Elkarrean pate-dastaketa antolatu du eta saioan izena emateko epea zabalik dago honez gero. Edozeinek eman dezake izena baina plaza mugatuak direnez, lekua gordetzeko alde aurretik ordaindu beharko da (3 euro). Telefonoz (943200918) edo ...eta kitto!ra joanda (Urkizu 11 solairuartera) eman daiteke izena. Pate-dastaketa Mungia Eskulak eskainiko du. Aire librean eta zaintza bereziki hazitako ahateekin egindako pateak ekoizten ditu enpresa bizkaitarrak, eta horietako batzuk ekarriko dituzte Eibarrera bertan probatzeko. Saioa ...eta kitto!ren egotzian hasiko da arratsaldeko 19:00etan.



Euskal Herri osoko txistulariak Arraten batu ziren

Euskal Herriko txistularien 90. urteurrenaren harira topaketa berezia hartu zuen gure herriak aurreko asteburuan, zapatuan. Euskal Herriko hainbat tokitatik etorritako txistulari guztiak Untzagan elkartu ziren goizean goiz eta, Coliseo antzokian elkartearen estatutuak berritzeko baztarraren egina eta gero, Arraten ederto eman zuten eguna.

Ignacio Zuloagaren "90 lan kosmopolitenak" Madrilen ikusgai

Mapfre Fundazioak Madrilgo Recoletos pasealekuan duen erakusleihoan erakutsiko dira urtarrilaren 7ra arte "Zuloaga en el París de la Belle Époque 1889-1914" muetarak hartuko dituen lanak. Eibartarra ez da bakarrik izango erakusketa horretan eta bere garaikide izan ziren Picasso, Gauguin, Rodin, Degas, Toulouse-Lautrec edo Singer Sargentek lanak ere ikus ahal izango dira bertan. Zuloagaren familiak lagatuko lanekin, beste 40 prestatzaileei esker osatu ahal izan da erakusketa. Sarrerak 3 euroko prezioa du.



Maialen Belaustegi

Musikarekin lagundutako bertsoek girotu zuten barixakuko gaua

Giro ederrean egin zen Hankamotxak Bertso Eskolak antolatuta bertso saio musikatuaren aurreko barixakuko gauan Txaltxa Zelaian. Beñat Gaztelumendi, Haritz Casabala, Ane Labaka eta Arkaitz Oiarzabal "Xamoa" bertsolariarekin batera, Ixak Arruti eta Eneko Sierra musikariek eta Jokin Bergara jai-jartzaileak hartu zuten parte.



Beldur Barik aurkeztuko dute gaur

Gaur arratsaldean, 19:00etatik 20:00etara Beldur Barik aurkezteko ekitaldia egingo dute Untzagan. Andretxeatik azaldu dutenez, "stand bat jarriko dugu, musika egongo da eta lehiaketan parte hartzeko informazioa ere banatuko dugu. Horrekin batera, Beldur Barik jarrerarekin argazkia egin nahi duenak horretarako aukera izango du, "photocalla" ere izango dugulako". Gogoan izan aurtengo Beldur Barik topaketa Eibarren izango dela, abenduaren 2an.



Biodantza ikastaroa

Arrate Kultur Elkarteak Biodantza ikastaroa antolatu du urriaren 19 eta 26rako. Klaseak elkartearen lokaletan (lehenen solairuko gela handian) emango dituzte, 19:00etatik 21:00etara eta irakaslea Asun Cid izango da. Ikastaroan parte hartzeko ez dago dantzan jakin beharrik, edozeinentzat egokia izango da. Izena emateko 660084734 telefonora deitu edo asuncidluis@gmail.com helbidera idatzi daiteke. Klaseetara arropa eroso eta galtzerdiak eramatea gomendatzen dute.

Sukaldaritza ikastaroa

Elikadura kontziente eta sukaldaritza bioenergetiko ikastaroa antolatu dute Natural Biodendak eta Silvana Huegun nutrizionistak. Kurtsoan Txinako medikuntzaren eta sukaldaritza bioenergetikoaren arabera negurako jakiak prestatzen irakatsiko dute. Hiru saio izango dira (urriak 19-26 eta azaroak 2), Portalean, 18:00etatik 20:30era. Prezioa 80 eurokoa da eta izena emateko 943567159 / 656716119 telefonoetara deitu.



Hilaren 12an hasi eta 22ra arte, bi aste iraungo du gurean Liburu Azokak. **Maialen**

Datorren egunean zabalduko dute Liburu Azoka Untzagan

Eibarko Liburu Azoka datorren astean, urriak 12an hasi eta 22ra bitartean egongo da martxan Untzagan. Datorren eguna jai eguna denez, beste batzuetan baino egun bat gehiago iraungo du azokak aurtan. Udaleko Kultura sailak lagunduta Euskadiko Liburu Ganbarak antolatzen duen azokan, betiko martxan, euskal eta erdal nobedadeak ipiniko dituzte salgai, baita euskal diskagintzako lanak, eta guztiek %10eko beharapena izango dute. Horrekin batera aukerako liburuak ere egongo dira eta, azokaren aitzakiarekin, Gerra Zibila bitarterarteko euskal poesiari lotutako erakusketa ere izango da: hainbat kartel egongo dira ikusgai, argazki eta azalpenek lagunduta. Ohiko euskal idazleen (Atxaga, Sainzarbitoria, Sarrionaindia, Urretabizkaia, Landa, Meabe, Lertxundi, Uribe, Cano...) liburuez gain, berrienak ere eskainiko dituzte azokan: Kattalin Miner, Jokin Andueza, Jon Ariza de Miguel eta beste hainbat. Etxetik kanporako literaturan, berriz, Almudena Grandesen "Los pacientes del Doctor García", Javier Maríasen "Berta Isla", Carlos Ruiz Zafonen "El príncipe de la niebla" eta beste asko erosteko aukera izango da eta urtero irakurleek aukeratzen dituzten idazleek (Toti Martínez de Lezea, Dolores Redondo, Jon Arretxe...) ere tokia izango dute. Haur eta Gazte literaturan Pirritx eta Porrotxen lanak, Nur eta bere abenturak... Azoka goiz eta arratsalde zabalduko dute, astelehenetik barixakura 11:00etatik 13:30era eta 17:00etatik 20:00etara eta asteburu eta jai egunetan, berriz, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:30era.

Eibarren amaituko da XVIII. 'Ciencia en Acción' programa domekan

Gaur Ermuko Izarra Centre eraikinean 19:00etan inauguratuko duten XVIII. 'Ciencia en Acción' programa Eibarren amaituko da domekan, 11:00etatik aurrera Coliseo antzokiak hartuko duen sari-banaketa ekitaldian. Baina horren aurretik, 10:00etan, Enrique Zuazua matematikari eibartarrak "Matemáticas: pasión y profesión" izenburuko hitzaldia emango du.



Enrike Zuazuak domekan hitzaldia emango du.


'Ciencia en Acción' programarekin "zientziaren komunikazio soziala sustatzea, zientziaren irakaskuntza berritzea eta hori nahiz teknika modu errazean gizartera zabaldu eta hedatzea" lortu nahi dute. Ekimenaren harira 160 proiektu zientifiko baino gehiago ikusteko aukera izango da eta Espainia osoko ikastetxeetako 600 ikasle eta irakasle baino gehiagok eman dute izena antolatutako ekitaldietan parte hartzeko. 'Ciencia en Acción' lehiaketara, berriz, 442 lan aurkeztu dira eta horietako 164 gaur eta bihar Ermuko Izarra Centren izango den finalera pasa dira.

Aste bateko epean bi sari irabazi ditu Asier Serrano idazleak

Irailaren 23an eman bazuten jakitera Eibarko idazleak poesia arloko Irun Hiria Saria irabazi zuela, "Denen mina da nirea" poesia bildumarekin, handik sei egunera euskarazko Euskadi Saria jasoko duela iragarri zuen Bingen Zupiria Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak, Serranok idatzitako "Linbotarrak" poemarioarengatik. Iaz Xabier Lete poesia saria ere jaso zuen Pamiela argitaletxeak argitaratutako "errealitatearen eta ilusioen arteko talakaz diharduen" eibartarraren lan horrekin. Azken sarietako dirua bere musika-ekimen batera bideratu du Serranok, bere sasoiaren agindu zuen bezala. Ohiko musikari laguntzaileekin berriz elkartu eta "Linbotarren itzalak ate os-

tean" bira jarriko du abian: Coliseoan izango da hilaren 27an eta, Erroman jo ondoren, Elgoibarrera itzuliko da gero.

Bestalde, Euskadi Sarietako saiakeraren alorrean Arantxa Urretabizkaia jasoko du saria, "Bidean ikasia" lanarengatik, eta gaztelarazko Euskadi Saria Fernando Aranbururentzat izan da, "Patria" liburuarengatik. Euskadi Literatura sariaren gainontzeko lau irabazleak (Gaztelaniazko Saiakera, Euskarazko Literatura Itzulpena, Euskarazko Haur eta Gazte Literatura eta Ilustrazioa arloetakoak) hemendik astebetara emango dira ezagutzera. Sari guztiak azaroaren 13an banatuko dira, Bilboko Azkuna Zentroan izango den ekitaldian.





**Errosarioko Amaren
 ezpata-dantza
 ELGOIBARREN**

Errosarioko Ama Birjinaren eguna da bihar eta, Elgoibarko Errosarioko kalean jairik izango ez den arren, Haritz Euskal Dantzari Taldekoek urteroko tradizioari eutsiko diote, meza ostean Errosarioko amaren aldeko ezpata-dantza eskainita. 12:00etan izango da meza nagusia Elgoibarko parrokian eta ondoren irtengo dira dantzariak kalera, segizioarekin batera.



**“Los Visitantes”
 ikuskizuna gaur
 ERMUKO Antzokian**

‘Khea Ziater’ proiektu independentetarako ‘Los Visitantes’ ikuskizuna dakarkigu gaur Ermua Antzokira, 10:15etik aurrera. Ikuskizuna talk show musikatua da, solasaldia ez dena, ikusleen hausnarketarako eta dibertsiorako prestatutakoa. Sarrerak 12 euro balio du. Kultura-alor ezberdinetako sei artista terraza batean elkartu dira jan eta edatera: aktoreak, aktoreak, musikariak, pentsalariak, idazleak, poetak... zeremonia-maistra baten gidaritzapean, eta aukeratutako gaien buruz duten ikuspegia ikusleekin partekatuko dute. Parte-hartzaile eta bisitari izango dira Carmen París, Raketa Brokobitx, Patxi Perez, Ana Arias, Jon Maia eta Arrate Etxebarria. Azken hau ikuskizunaren gidari izango da, gaiak eta ekintzak proposatuko baititu.

eguraldia (EUSKALMET.NET)

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

hildakoak

- Eusebio Oiarzun Zarraua. 85 urte. 2017-IX-28.
- Benita Razquin Razquin. 85 urte. 2017-IX-28.
- Federico Zabala Arakistain. 85 urte. 2017-IX-29.

jaiotakoak

- Noah Lopez Garcia. 2017-IX-25.
- Oier Mendes Fernandez. 2017-IX-26.
- Jare Perez de Obanos Larreategi. 2017-IX-27.
- June Gabiola Ibarra. 2017-IX-28.
- Unai Nieto Rodriguez. 2017-IX-28.
- Victoria Major Garcia. 2017-IX-29.
- Paul Lejardi Etxaniz. 2017-IX-30.

telefono jakingarriak

SOS deiak112	Mendaro osp.....943 03 28 00
Pegora.....010	Anbulategia943 03 25 00
Udaletxea943 70 84 00	Torrekuia943 03 26 50
Portalea.....943 70 84 39	Errepideak.....902 11 20 88
Udaltzaingoa.....943 20 15 25	Ertzaintza943 53 17 00
Mankomunitatea 943 70 07 99	Eusko Tren.....902 54 32 10
Debegesa43 82 01 10	Lurraldebus900 30 03 40
KIUB943 20 38 43	Pesa.....900 12 14 00
Epaitegia943 03 34 00	Taxiak943 20 30 71
Iberdrola.....901 20 20 20943 20 13 25
Naturgas902 12 34 56	Alkohol.Anon.....629 14 18 74
DYA Larrialdiak..943 46 46 22	Al-Anon/Alateen..650 26 59 63
Gurutze Gorria...943 22 22 22	

farmaziak

- Barixakua 6
 EGUNEZ Mandiola (S. Agustin, 3)
- Zapatua 7
 EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
- Domeka 8
 EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- Astelehena 9
 EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- Martitzena 10
 EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
- Eguaztena 11
 EGUNEZ Lafuente (Sostoatarren, 10)
- Eguena 12
 EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
- Barixakua 13
 EGUNEZ Iraundegi (Calbeton, 19)
- Zapatua 14
 EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
- Domeka 15
 EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
- Astelehena 16
 EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
- Martitzena 17
 EGUNEZ Mandiola (S. Agustin, 3)
- Eguaztena 18
 EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
- Eguena 19
 EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- Barixakua 20
 EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)

GAUEZ BETI - 2017AN-
 Mandiola (S. Agustin, 3)

			4	1				
		3			2	5		
5	6		9					1
7						4		
	9	5			7	8		
	3							2
2				4		3	8	
		6	7		2			
				9	6			

SUDOKUA

AURREKOAREN EMATZA

2	5	7	6	8	3	4	1	9
4	6	3	1	9	7	5	2	8
9	1	8	2	4	5	6	3	7
6	2	4	8	3	9	1	7	5
1	3	5	7	6	4	8	9	2
8	7	9	5	1	2	3	4	6
7	9	6	4	5	1	2	8	3
5	4	2	3	7	8	9	6	1
3	8	1	9	2	6	7	5	4

Barixakua 6

BIDEO-FORUMA

19:00. *"Figuras ocultas"*. Pagatxaren eskutik. Sarrera librea. Portalean (areto nagusian).

Zapatua 7

XIX. JARDUNALDI MIKOLOGIKOAK

08:15. Mendi irteera, perretxikoak biltzera. Autobusak Ego-Gainetik irtengo dira.

16:00. Egunean zehar jasotako espezieen aukeraketa eta sailkapena. Klub Deportiboan.

SAGARDO EGUNA

12:00/14:30. Eibarko Sagardo Eguna. Alorrenea, Altzuetan, Barkaiztegi, Begiristain, Egi-Luze, Gartziategi, Gaztaña, Gurutzeta, Isastegi, Olaizola, Sarasola, Zelaia eta Zapiain sagardotegietako sagardoa, pintxoak, musika... Untzagan.

19:00. Arratsaldeko saioa. Untzagan.

EKOLAPIKO EGUNA

Goiz eta arratsaldean. Tailerrak, antzezlanak eta umeentzako jolasak eskainiko dira. Urkizun.

1967-KOEN JAIA

12:00. 1967an jaiotako en jaiak. Txupinazoa, Untzagan.

12:30. Talde-argazkia.

13:00. Kalejira musikala eta pintxo-potea.

15:00. Bazkaria, Armeria Eskolako frontoian.

20:00. Kalejira musikala eta pintxo-potea.

22:00. Jaia Punto y Aparte diskotekan.

BOOKTUBERBOOM

17:00/19:00. *"Booktuber-Boom"* lehiaketaren harira, Iban Garcia youtuberrarekin saioa. Liburutegian.

Domeka 8

XIX. JARDUNALDI MIKOLOGIKOAK

10:30/14:00. Perretxikoen erakusketa, dastaketa eta salmenta. Txosna eta produktu mikologikoen salmenta (Mikel Lasa). Toribio Etxebarria kalean.

Eguaztena 11

EIBARKO KANTUZALEAK

19:00. Abesbatzaren entsegua. San Andes elizako lokaletan.

Eguena 12

LIBURU AZOKA

11:00/14:00 eta 17:00/20:30. Eibarko Liburu eta Disko Azoka. Untzagan.

Barixakua 13

LIBURU AZOKA

11:00/14:00 eta 17:00/20:30. Eibarko Liburu eta Disko Azoka. Untzagan.

MUSIKA

19:00. 70. eta 80. Hamarkadetako musika saioa, J.L. Agirrerren eskutik. Estaziño tabernan.

Zapatua 14

LIBURU AZOKA

11:00/14:00 eta 17:00/20:30. Eibarko Liburu eta Disko Azoka. Untzagan.

BISITA GIDATUA

17:00. Eibarko Armagintzaren Museoko erakusketa ezagutzeko bisita gidatua, doan (euskeraz).

18:30. Bisita gidatua, gazteleraz.

Domeka 15

KALEJIRA

11:00. Usartza Txistulari Taldearen kalejira.

LIBURU AZOKA

11:00/14:00 eta 17:00/20:30. Eibarko Liburu eta Disko Azoka. Untzagan.

Astelehena 16

LIBURU AZOKA

11:00/13:30 eta 17:00/20:00. Eibarko Liburu eta Disko Azoka. Untzagan.

Martitzena 17

LIBURU AZOKA

11:00/13:30 eta 17:00/20:00. Eibarko Liburu eta Disko Azoka. Untzagan.

HITZALDIA

18:30. *"Arimen Gaua, Halloween eta Gau Beltzaren haur ospakizunen ikerketa etnografikoa"*. 2015eko Juan San Martin bekaren proiektu irabazlea. Hizlariak: Juan San Martin bekako epaimahaikideak eta Josu Ozaita eta Jaime Altuna, lanaren egileak. Portalean.

Eguaztena 18

LIBURU AZOKA

11:00/13:30 eta 17:00/20:00. Eibarko Liburu eta Disko Azoka. Untzagan.

DASTAKETA

19:00. Hainbat pate dastatzeko saioa. Izen-ematea urriaren 4tik aurrera (3€). ...eta kitto! Euskara Elkartearen.

JARDUNALDIAK

19:00/20:30. *"Energia, ingurumena eta gizartea"* jardunaldiak: *"Ekonomia zirkularra"* hitzaldia, Santiago Barba, Eko-REC enpresako zuzendariaren eskutik. Sarrera librea. Portalean (areto nagusian).

Eguena 19

LIBURU AZOKA

11:00/13:30 eta 17:00/20:00. Eibarko Liburu eta Disko Azoka. Untzagan.

ODOL-EMATEA

18:30. Odola ateratzeko saioa, odol-emaileentzat. Anbulatorioan.

DEBABARRENEKO II. GAZTA ASTEA

Arratsaldean. Pintxo-potea, eskualdeko zazpi gaztekin. Eibarko tabernetan.

IKUS-ENTZUNEZKOA

19:30. Periko Iriondoren Nepalgo argazkiak (II. kapituluak). Klub Deportiboan.

KONTZERTUA

20:30. Mendaroko Ospitalaren 25. urteurrena ospatzeko kontzertua: Orkestra Lirika; Nerea, Maddi eta Juan Arriola (biolinistak); Sostoa abesbatza; Debabarrena Orfeoia; Marifé Nogales (mezzosoprano); Elisa di Pietro (soprano); Igor Peral (tenor). Musika gidaritza: Jose Miguel Laskurain eta Arkaitz Mendoza. Sarrerak: 15 euro. Coliseoan.

Erakusketak

Domekara arte:

– **ARRATE KULTUR ELKARTEKO** bazkideen lanak (*Topaleku*)

Urriaren 15era arte:

– **"MITXOLETAK", FITO R. ESCUDERO.** (*Portalea*)

Urriaren 29ra arte:

– **"PEDALEI ERAGITEN 50-EKO HAMARKADAN"**. (*Museoa*)

Azaroaren 19ra arte:

– **AMAÑAKO JAI BATZORDEARI LAGUNTZEKO KAMISETAK.** (*Untzagako Jubilatutxoa*)

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, ANER, haraiñegun 6 urte egin zenuaz-eta. Musu bat famelixaren eta, batez be, Danel, Noa eta Lukaren partez.



Zorionak, ALAITZ Urizar Bravo, hillaren 10ian 16 urte egingo dozuz-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, HIART, bixar 8 urte beteko dozuzelako. Patxo haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, ANE, bixar 9 urte beteko dozuz-eta!! Musu pillote etxekuen partez.



Zorionak, IZEI Aranberri Zubizarreta, domekan 2 urtetxo egingo dozuz-eta. Musu haundi bat etxekuen eta, batez be, Lizarren partez.



Zorionak, ARTZAI!, eguaztenian urtia beteko dozu-eta. Musu pilla bat etxekuen eta, batez be, Koikilli, Ekhi, Eñaut, Lizarren partez.



Zorionak, LAIA, etzi 5 urte egingo dozuz-eta. Musu haundi bat gurasuen partez. Asko maite zaittugu, printzesa!



Zorionak, IKER, gaur 9 urte betetzen dozuz-eta! Patxo mordua famelixa guztiaren partez. Asko maite zaittugu!



Zorionak, LEIRE, domekan 8 urte egingo dozuzelako. Etxekuen partez. Asko maite zaittugu.



Zorionak, EKAIN!, bixar 7 urte egingo dozuz-eta. Ondo pasa eta musu haundi bat zure famelixaren partez, guapisimo!



Zorionak, MARTINA, printzesa, atzo urtetxua egin zenuan-eta. Patxo haundi bat famelixaren eta, batez be, Telmoren partez.

zineaColiseoan

(1 ARETOAN)


7an: 19,45, 22:30

8an: 20:00

9an: 20:30

"Jacques"

Zuzendaria: Jerome Salle



(2 ARETOAN)

7an: 17:00, 19:45, 22:30

8an: 17:00, 20:00

9an: 20:30

"Madre!"

Zuzendaria: Darren Aronofsky



(ANTZOKIAN)

7an: 16:30⁽¹⁾, 19:15, 22:30

8an: 16:30^(1 aretoan), 20:00

9an: 20:30

"Blade Runner 2049"

Zuzendaria: Denis Villeneuve



(ANTZOKIAN)

7an: 17:00

8an: 17:00

"Gru 3. Mi villano favorito"

Zuzendaria: Pierre Coffin



i Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako **PREZIOAK** honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Pisua salgai T. Etxebarria kalean (105 m²). 3-4 logela, egongela-jangela, sukaldea, komun bi eta balkoi bi. Bizitzera sarztekod moduan. Tel. 649-258913.

1.2. Errentan

– Pisua hartuko nuke Eibarren. 3 logelekoa. Tel. 628-318570.
– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 657-479770.

2. Motorra

2.1. Salgai

– Ford SMax autoa salgai. 7 plazakoa. 8 urte. 6.200 euro. Tel. 618-748143.

3. Lokalak

3.2. Errentan

– Lokala salgai edo alokagai J. Etxebarria kalean. 130 m². Erabilera anitzetarako egoia: biltegi, trasteroa... Tel. 647-525990.
– Garaje handia hartuko nuke Urkizua-Matsaria inguruan. Tel. 690-610740.
– Industria-pabilioia alokagai, garabiekin, Elgoibarko Olaso poligonoan. 200 m² + 70 m² solairuaratean (7 metroko altuera). Tel. 649-258913.
– Taberna-jatetxea alokagai Urkizun. Tel. 615-784312.
– Trasteroa edo garaje itxia erosiko nuke Arragueta kale inguruan. Tel. 606-088412.
– Garajea alokagai Legarre-Abontzan. Tel. 617-688311.

4. Lana

4.1. Lan bila

– Gizonezko arduratsua eskaintzen da sukalde-laguntzaile jarduteko. 6 urteko esperientzia. Tel. 622-321095.
– Emakumea eskaintzen da etxeko lanetarako eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Edozein egunetan. Tel. 676-229560.
– Emakumea eskaintzen da egunez nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 632-610175.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita gauzez ere. Tel. 632-636069.
– Neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta garbiketarako. Orduka. Tel. 612-223075.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, paseatzera ateratzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia handia. Tel. 661-001246.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko (baita ospitalean ere) eta garbiketarako egiteko. Tel. 606-906729.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 632-061103.
– Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta pegorak edo soziedadek garbitzeko. Baita gauzez ere. Tel. 657-479770.
– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 686-077316.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Eibarren edo inguruan. Tel. 649-258913.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 632-218828.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Goizez eta gauzez. Tel. 662-012834.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Arratsaldez eta gauzez. Tel. 632-669488.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-907532.
– Umeak gaixotzen zaizkizunean zainduko dizkizut. Haur Hezkuntzako irakaslea naiz. Orduka edo egunka. Tel. 688-862668.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 631-059098. Soukaina.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 631-910326.
– Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 632-067287.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Goizez. Tel. 677-689227.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Arratsaldez eta gauzez. Baita asteburuetan ere. Tel. 608-886701.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta pegorak garbitzeko. Tel. 688-959575.
– Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 661-127328.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Interna. Tel. 602-818849.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-436462.
– Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-410561.
– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Gauzez eta ospitalean. Tel. 688-739589. Carlos.
– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 632-526844.
– Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko (esperientzia), pegorak edo etxeak garbitzeko eta sukaldari-laguntzaile moduan. Tel. 631-827339.
– Neska eskaintzen nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 610-627511.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 633-872772.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 662-003400.
– Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko edozein ordutan. Tel. 632-551711.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko arratsaldez eta gauzez. Tel. 666-771151.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 646-821678.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 678-814941.
– Neska eskaintzen da txakurrak pasiatzeko eta goizez umeak eskolara eramateko. Tel. 687-033834.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia handia. Tel. 653-569377.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita gauzez ere. Tel. 664-357381.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Erreferentziak. Tel. 689-571882.
– Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 650-513412.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko gauzez eta garbiketarako egiteko. Tel. 602-490595.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna eta baita gauzez ere. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 628-529252.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna eta baita gauzez ere. Tel. 602-089662 eta 631-901987.
– Neska eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 631-527536.

4.2. Langile bila

– Emakumea behar da Ermuan nagusia zaintzeko. Egun osorako. Tel. 616-181118.
– Soraluze-Plazentziarako pertsona behar da interna, adineko bat zaindu eta etxeko martxa eramateko. Tel. 615-720267.
– Emakumea behar da Eibarko taberna batean asteburuetan sukaldean lan egiteko. Esperientziarekin. Tel. 655-722967.
– Kamarera/o behar da Eibarko kafetegi batean. Euskera jakitea baloratuko da. Bidali curriculumara: extraeibar2015@gmail.com
– Kamarera behar da jatetxe batean asteburu eta jai egunetarako. Esperientziarekin. 620810120
– Jatorriz ingeles hiztuna den neska behar da bi ume zaintzeko. Egunero bi ordu, astelehenetik ostiralera. Tel. 649-816474.
– Neska bi behar dira publizitate eskaintzarako egiteko. 22-28 urte artekoak eta Marketing edo Psikologia ikasitakoak. Sutondo Labaderokuan galdetu.
– Sukaldari-laguntzailea eta kamarera/o behar dira jatetxe batean. Tel. 665-308025 eta 685-286303.

5. Irakaskuntza

5.1. Eskaerak

– DBH 3. mailako Matematikak eta Fisika klase partikularrak emateko irakaslea behar da. Tel. 669-293462.

5.2. Eskaintzak

– Musikenen ikasitakoak gitarra klaseak ematen ditu. Adin guztiarako. Tel. 652-217737. Mariano.
– Klase partikularrak ematen ditut. DBH, Batxilergo eta Heziketa Zikloak. Talde txikiak. Tel. 685-739709.
– LHko irakaslea naiz eta klase partikularrak emango nituzke, ingelesa barne. Prezio onean. Tel. 688-659861. Markel.
– DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

6. Denetarik

6.1. Salgai

– Binilozko diskoak, singleak eta LP-ak erosten ditut. Tel. 688-624326.
– Sehaska salgai, koltxoia eta guzti. Egoera oso onean, gutxi erabili. 70 euro. Tel. 687-675484.

6.2. Eman

– 2 urteko pitbull txakurra oparitzen da. Marroia, tamaina ertainekoa eta ondo hezitua. Tel. 647-952677.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

943 20 09 18
publizitatea@etakitto.eus

Zero Kilometroaren Hilabetea Hyundai Oarso Car-en



Tucson GDI 131 cv
16.900 €

i20 Fresh MPI 85 cv
8.900 €



i30 Klass TGDI 120 cv
13.500 €

OARSO CAR
HYUNDAI KONTZESIONARIO OFIZIAL BERRIA GIPLUZOARAKO
WWW.OARSO-CAR.COM

ELGOIBAR

Olaso Polig., 17

943 74 14 80

OIARTZUN

Lintzirin Poligonoa, 1
943 49 48 30

BEASAIN

Errepide Nazionala, 1
943 80 40 54


IRUN

Juan Thalamas, 43
943 63 97 69

HYUNDAI



Hyundai Gama i30 5 ate: CO₂ emisioak (g/Km): 94-169. Kontsumo mistoa (l/100 Km): 3,6-7,3.
Hyundai Tucson Gama: CO₂ emisioak (g/Km): 119-175. Kontsumo mistoa (l/100 Km): 4,6-7,5.
Kopuru mugatua, stock-a amaitu arteko eskaintza. Finantziarioari lotuta. Baldintzak galdetu: oarsocar.com



BI SAIO

Azaroak 11

zapatua

16:30 eta 19:00

Azaroak 12

domeka

16:00 eta 18:30

BAZKIDEENTZAKO

aurre-salmenta 7,50 €

Urriaren 16tik 27ra

...eta kittoln salgai

bazkide bakoitzak

3 sarrera gehienez

Ordutegia: 10:00-14:00

eta 16:00-19:30

Gainontzekoak 3,00 €

Urriaren 28tik aurrera

- El Tio Palancas (J. Gisasola)

- Venetik (Urkizu)

- Gozoki (Bidebarrieta eta Sostoatarren)

Esku onetan egotearen ziurtasuna.

20.000tik gora paziente pozik.

Etorri eta egin irribarre berriz ere.



20 urte baino gehiago zurekin.



Profesional talde handi bat zure
irribarre zaintzen.



Zure irribarre onena geure
laborategian diseinatzen dugu.

R.P.S. 123/17



bista eder
clinica dental - horts klinika

Deitu | 943 70 00 82

bista eder, 19 - bajo 20600 eibar
www.bistaeder.es